ASTEKARIA | 2018ko martxoaren 23an | XXI. urtea | USURBIL | 734. zenbakia | www.noaua.eus TOKIKOM

# noaua

**Puntu beltzik gabeko herri seguru baten alde**

**Aginagako frontoiak estalki berri bat izango du atzekaldean**

**Buruntzazpi, errepidera irteteko prest**



## Asier Zubiria Aierbe, Bidasoa eskubaloi taldeko atezaina

# “Usurbilen bezala ez dut inon gozatu”


Lanak amaituta!
Bi etxe baino ez
dira geratzen!
-Orain etxea erosterakoan
garajea opari.
-(Ate automatikoarekin
itxitako garajeak)
-Sukaldeak muntatuak.
-Kalitate onekoak.
-Leku pribilegiatua.
-Bisita, konpromisorik gabe
contacto@viviendaslanin.com
LANIN ETXEBIZITZAK
943468860 / 670828696


GOLDWELL
ELUMEN
ileapaindegi
mistoa
mistoa
Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak
Zubiaurrenea 4, 943 361 951


Escocia
Noaoa
BIDAIAK
943 373 613
IRTEERA IRAILEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

## Albistea iruditan

# Udarregiko ibilbidea, argazkietan

Orain noiznahi eta nahi adina argazki ateratzen ditugun garai honetan, askoz errazagoa zaigu une bat erretratatu eta argazki hori zabaltzea. Garai batean ordea, lan askoz neketsuagoa zen. Kamera zaharrekin ezin nahi adina argazki atera, errebelatu egin behar… Lehen ez zen orain adina argazkilaririk. Eta argazki gutxiago egiten ziren noski. Nabarmentzekoa da horregatik, 50 urte betetzear dituen Udarregi Ikastolak aste hasieran Sutegin zabaldu zuen erakusketarako aurrez egin duen lanketa itzela. 60. hamarkada amaieratik hasi eta 2000. urte ingurura arteko argazkiak bilduma osatu eta ikusgai jarri dute kultur etxeko aretoan. Ostiralera arte, martxoaren 23ra arte bisitatu ahalko duzue erakusketa, arratsaldez, 17:00-19:00 artean.



**Ostiralera arte, martxoaren 23ra arte bisitatu ahalko duzue. Arratsaldez, 17:00-19:00 artean Sutegin.**

Ikastolan hazi eta hezitako guztiek oroitzapen eder askoak biziberritzeko aukera izango dute. Ikasle eta hezitzaileak ageri dira bilduma honetan. Ikasturte bukaerako bidaietako argazkiak, inauterietakoak, ikasgela barrukoak… Ezusteko eder askorekin topo egingo duzue, ikastolak Sutegiko erakustaretoan jarritako paneletan eta telebista pantaila bidez. Erakusketa, irakasle talde batek atondu du.

Argazkiak bildu, hautatu eta txukun asko bilduma honetarako atontzen lan ederra egin dute.

## Laburrean

### NOAUA!rik ez da izango datozen bi asteetan

Apirilaren 13an plazaratuko dugu hurrengo astekaria. Zorion agurrik edo oharrik ipintzeko, NOAUA!ra helarari emailez: erredakzioa@noaua.eus

### Apirilaren 21ean, 1968ko kinto bazkaria

Atxega jauregian batuko dira. Izena emateko azken eguna apirilaren 10a izango da. Deitu edo whatsapp bidezko mezua bidali 696 411 683 telefono zenbakira.

### Errigoraren produktuen bilketa

Olio bidoiak apirilaren 10etik 13ra jaso beharko dira NOAUA! K.E.-ren egoitzan. Kontserbak ekainean. Produktuok jasotzerako unean egin beharko dira ordainketak.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Imanol Ubeda

# Eta zuk, zer nahiago duzu?

Eguberriak dira. Futbito txapelketa jokoan da eta giroa borborka kiroldegi barruan. Itzal handikoa da herrian eta talde askok hartzen dute parte. Baita inguruko herrixketakoek ere. Denek nahi dute Eguberrietako Txapelketan parte hartu. Bere garaian, Xabi Alonso eta beste hainbat ere txapelketa honetan lehiatu ziren. Eta begira noraino iritsi diren gero.

10 urteko mutil koadrila bat (Intxaur izenarekin bataituko dugu taldea), finalaurrekoetara sailkatu da eta pozez gainezka daude. Taldeko baten aitak egiten ditu entrenatzaile lanak.

Batzuk oso trebeak dira baloiarekin, besteak ez horrenbeste. Baina Intxaur taldeko denek sentitu dute antzeko euforia.

Biharamunean jokatuko da finalaurrekoa. “Ondo deskantsatu eta ondo gosalduta etorri biharko partidara”. Elkarri animoak eta estutuak emanez agurtu dute elkar. Jokalari bakoitza bere gurasoekin eta senideekin batera urrundu da kiroldegitik.

Iritsi da eguna. Iritsi da kiroldegira hurbiltzeko ordua. Ilusioz gainezka batu dira Intxaur taldeko denak kiroldegiaren atarian. Gurasoak harmailetara igo dira, euren semeak animatzeko gogoz. Jokalariek aldageletarako bidea hartu dute.

Aldageletan, taldekideak prest daude. Babesle duten taberna baten kamiseta soinean. Pozarren. Kantxara irten aurretik, entrenatzaileak dei ozen bat egin die denei: “ea ba, entzun. Batu gaitezen denak borobilean”.

Jokalari gaztetxoak isildu, agindua bete eta entrenatzaileari adi-adi daude: “Asko kostatu zaigu honaino iristea. Azken txanpan gaude. Gaurko partida irabazten badugu, biharko finalera sailkatuko gara!”.

Begiak zabal zabalik dituzte umeek. “Orain arte, oso ondo joan zaigu eta denek jolastu duzue. Partida guztietan, antzeko minutuak izan dituzue denok. Hala ere, gaurko aurkariak oso onak dira. Eta hori kontuan izanda, gauza bat galdetu nahi dizuet. Zer nahiago duzue, denek jokatzea ala finalera iristea?”. Umeek ez dute zalantzarik egin. “Finalera iritsi nahi dugu!”.

Hasi da partida. Ondo hasi ere. Dena den, Intxaur taldeko entrenatzaileak arrazoi zuen. Oso onak dira aurkariak. Buelta eman diote markagailuari. “Ez dugu etsi behar. Oraindik badugu partida irabazteko aukera”.

Harmailetan sekulako giroa dago. Bateko zein besteko taldeen jarraitzaileek eztarria urratuko dute gaurkoan. Intxaur taldeko baten ama bat hasi da zer edozer arraroa sumatzen. Bigarren zatia da eta 10 urteko semeak ez du oraindik minutu bakar bat ere jokatu. Beste bi taldekidek bezalaxe. Nonbait, bera da horretaz jabetu den bakarra. Inork ez du ezer aipatu. Eta amak isilik jarraitu du partidari begira.

Amaitu da norgehiagoka. Aurkariak gehiago izan dira eta Intxaur taldekoek galdu egin dute. Besteak hobeak ziren eta kitto.

Ama ez dago lasai. Entrenatzailearengana hurbildu da eta ea zergatik utzi dituen hiru jokalari eserlekuan, jokatu gabe. “Jokalariek erabaki dute. Aldageletan galdetu diet eta denak ados zeuden. Baita zure semea ere. Bide batez, oso ume txintxoa duzu. Bejondeizula”.

---------------------------------------

Axi Zubiria elkarrizketatu nuen duela bi aste. Bere hausnarketa interesgarriei adi nengoela, memoriaren errepertorioan ahaztua nuen pasarte hau etorri zitzaidan gogora. Duela urte gutxikoa da. Fikzionatu egin ditut dialogoak eta futbol taldeko izena, baina kontatutakoa benetakoa da. Benetakoa bezain adierazgarria.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | **Imanol Ubeda** | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

# Gorakada txiki bat berriz, otsaileko langabezia datuetan

Abendutik urtarrilera 252tik 258 igo zen lanik gabeko herritar kopurua. Otsailean 258tik 262ra, Estatuko Enplegu Zerbitzuak argitara eman dituen azken datuen arabera.

Bereziki emakumezkoen artean igo da langabezia; urtarriletik otsailera, 146tik 156ra. Zertxobait jaitsi da aldiz Buruntzaldean. 45 langabetu gutxiago zenbatu dituzte otsailean, guztira 3.272. Eta Gipuzkoan ere beherantz; 380 langabetu gutxiago joan den hilabetean, guztira 33.602.

Erregistraturiko lan kontratu kopurua ere murriztu da. Urtarrilean 443 kontratu erregistratu baziren, otsailean 113 gutxiago, 330. Ia denak, 313, aldi baterako. 179 lan kontratu gizonezkoenak, 151 emakumezkoenak izan ziren.






# Giza-katerako izen ematea

Gure Esku Dago ekainaren 10erako antolatzen ari den giza-katea Usurbildik eta Aginagatik igaroko da. Guztira bi kilometroko eremuan, katea osatzeko 1.000 herritar baino gehiago beharko dira. Giza-katerako izen ematea zabalik dago jada.

Horretarako gerturatu, Usurbilgo Gure Esku Dagok, ostiral arraldeeetan, eta larunbat zein igande eguerdietan frontoi inguruan jarriko duen mahaira. Bertan, mobilizazio historiko hau finantzatzeko painuelo eta kamiseta berriak eskuragarri izango dituzue, 5 eta 10 eurotan hurrenez hurren. Bestalde, gogoan izan, ostegunero biltzen dela Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldea 19:00etan Potxoenean, antolaketa lanak bideratzeko.




**Asteburuetan, frontoi inguruan, izena emateko aukera dago.**

**Informazio gehiago:**
Facebook: GureEskuDagoUsurbil
Twitter: @GureEskuDagoU
gureeskudago.eus

### Ostiral honetan, elkarretaratzea eta harpidetza afaria

Euskal presoen eskubideen aldeko hitzordu bikoitza ostiral honetan, martxoaren 23an:

**Martxoak 23, ostirala**

- 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.
- 21:00 Harpidetza afaria Aitzaga Elkartean.
- Menua: entsalada epela zizekin, masailak saltsan, flan tarta, edariak eta kafea.
- Prezioa: 20 euro, langabeek 14 euro.
- Txartelak aurrez salgai Aitzagan.
- Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

**Ika-mika**

# Manifestatu zaitez, ez diezazutela pentsioa lapurtu

Kezkatzeko moduko egoeren aurrean gaude, eta kontua da etxe askotan gorriak ikusten ari garela hilabete amaierara iristeko edo zailtasun handiz egiten dugu.

Pobretutako klase sozial baten kide gara, bihotzik gabeko sistema kapitalista honek indartzen dituen soldata baxuen, lan prekarietatearen, pentsio ziztrinen eta ikaragarrizko ezberdintasunen ondorioz.

EAEn 544.000 pertsona gara pentsiodunak, eta horietatik emakumeak gara pentsiorik baxuenak ditugunak. 15.000 pentsiodunek DBEa (RGI) jasotzen dute, 10 pentsiodunetik hiruk 600 euro baino gehiago kobratzen dute eta hemen ere gehienak %77 emakumeak gara. Errealitate gordin horren parte garenok ez dugu onartuko Madrilgo eta Gasteizko gobernuko politikariek beste alde batera begiratuz miseria gorrian bakarrik utz gaitzaten, lehenik izozketa baten bidez eta gero miseria bat den %0,25eko igoera ziztrin batekin. Gure eros ahalmena berreskuratu beharra dugu, azken urteetan KPIa ez igotzeagatik galdu dugun guztia berreskuratu beharra dago.

Lanean aritu ginen, atsedenik gabe eta duintasunez bizi nahi ditugu gure bizitzen azken urteak. Gaur egun, zoritxarrez, boterean dauden ekonomia gobernatzen duten politikariei ez zaie askorik inporta zein egoeretan gauden pentsiodun asko. Baina, hori bai, asko inporta zaie aberatsei laguntzea eta mesedeak egitea, zerga gutxiago ordaindu eta beren soldata itzelak eta neurriz kanpoko pentsioak manten ditzaten.

2016ko irailaren 21ean Eusko Legebiltzarrean 71.724 sinadura aurkeztu genituen, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa izateko eskubidearen alde eta Euskadin Pentsio eta Gizarte Segurantza Sistema Propioa eskatzeko. Eusko Jaurlaritzak beste aldera begiratu du, alde batera utzi gaitu. Dena den, 71.724 sinatzaileak pertsonak gara eta uste dugu gure eskubideen alde egiten dugula eta ez gara nekatuko errepikatzen, aintzakotzat hartzen gaituzten arte, gure bizitzak eta osasunak haien etekinak baino askoz gehiago balio dutela.

Pentsioak ez dira bakarrik adineko pertsonen arazoa, gure arazo handienetako bat da.

**Duintasuna Elkartea,
Gipuzkoako Jubilatu
eta Pentsiodunak.**

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: apirilak 13. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 9.

# Erroizpeko ura berme guztiekin berriz edan ahal izateko lanketa betean da Udala

Lau hilabete igaro dira herritar ugari kutsatu zituen gastroenteritis brotea izan zenetik. Iturritik edaten dugun ura mintzagai izan zen egun haietan. Brotea zerk eragin zuen, Erroizpetik jasotzen den ura edangarria ote den… Hamaika zalantza eta galdera plantetatu ziren egun haietan. Gertatu zenaz edota aurrera begira, halakorik errepikatzea saihesteko hartu asmo dituzten neurrien gaineko xehetasunen berri eman dio NOAUA!ri Usurbilgo Udalak.



Azaroan gertatu zen ezbeharra eta alarma handia eragin zuen. Geroztik hona, Udala gertatutakoa ikertzen aritu da. Usurbilgo Udalaren esanetan, ur hornidurareren klorazio sisteman egon zen akatsa.

Hasteko, gertatu zenari buruzko argibideak eskaini dituzte. Hainbat herritar kutsatu zituen birusaren atzean, ur horniduran klorazio sisteman egon zen akatsa. Klorazio mailak ohiko parametroetan egoteari uzten dionean, alarma sistema bat aktibatzen da eta horrek klorazio maila areagotu edo gutxitzen du, maila estandar horretara itzuli arte. “Hor egon zen akatsa”, dio Udalak, “alarma sistemak ez zuen behar bezala funtzionatu”. Ondorioz, 2017ko azaroa hasierako asteburuan, “ura gutxi kloratuta etorri zen iturrietara”.

Kloro nahikorik ez izateak, menditik urak zekartzan mikro organismoak ezin izan zituen akabatu. Eta ur hori beraz, ez zen edangarria une hartan. “Orduetako kontua izan zen, nahikoa herritarrak kutsatzeko”, dio Udalak. Pertsonen arteko kutsadurak egin zuen gainerakoa, herrian brotea sortzeraino.

**ZERGATIA**

***Kloro nahikorik ez izateak, menditik urak zekartzan mikro organismoak ezin izan zituen akabatu. Eta ur hori beraz, ez zen edangarria une hartan. “Orduetako kontua izan zen, nahikoa herritarrak kutsatzeko”, dio Udalak***

**Azterketa sakona**

Joan den azaroko gertakariak izan eta berehala eten zen Erroizpeko ur hornidura. Ordutik Añarbetik edaten du herri osoak. Berehala, lan talde bat osatu zuen Udalak udal brigada, teknikari eta hautetsiekin. Lan talde hau Añarberekin eta Osasun Sailarekin harremanetan izan da une oro. Aipatu sailarekin kontrastatuta bideratzen ari da Udala lanketa hau. Lanketa tekniko sakona egin behar zela erabaki zuten. Enpresa aholkulari batek azterketa sakona egin dio Udalari, “ura jasotzen den tokietatik etxeetako iturrietarainoko bide guztiak aztertu ditu”.

**Adituen aholkularitza teknikoa jaso dute**

Adituen aholkularitza teknikoa jaso du, batetik ur hornidura sarearen azterketa egin dutenena, baita azpiegitura hauetako material eta aparatuetan adituak direnena ere. Begi bistan denez, etorkizuneko erronka argia du Udalak; “sistema hobetu behar da berriz halakorik gerta ez dadin”. Baina haratago joan nahi du Udalak. Uraren kudeaketari buruzko hausnarketa eta azterketa bideratu asmo du. “Harremanetan gaude Iñaki Antiguedadekin. Katedratikoa da hidrologia kontuetan. Berari ere eskatu diogu nola jokatu behar genukeen, zein diren jarraitu beharreko ildoak, politikak gai hauetan. Bera ere ari zaigu aholkularitza eskaintzen. Beraz, egitera goazen guztiak badu perfil eta eskala ezberdineko aholkularien ekarpena”, azpimarratu digute Usurbilgo Udaletik.

**“Uraren kudeaketa zentzu handiz egin behar da”**

“Krisi honek ere balio behar digu mahai gainean jartzeko uraren kudeaketaren eztabaida sakon bat. Ura gaur egun, mundu mailan ondasun garrantzitsuenetako bat da. Etorkizunari begira eta aldaketa klimatikoarekin gainera, urarena borroka gai inportantea dela ikusten da. Badirudi Euskal Herrian ur nahikoa dugunez hortik kanpo gaudela, baina ez da hala. Uraren kudeaketa arrazoiz eta zentzu handiz egin behar da. Horregatik, nik uste Usurbilen bizi izan dugun krisi honek balio behar digu baita ere kontzientzia soziala areagotzeko, uraren politikak fintzeko. Horretarako, Iñaki Antiguedaden eta adituon ekarpena garrantzitsua izango da”, adierazi du alkateak.

# Erroizpeko urari, ukorik ez

Etorkizunerako erronka argia da; herri honek Erroizpeko ura berriz edan ahal izatea. Ez baitute zalantzarik, bertakoa “ur oso ona da”. Eta kontuan izan, herri honek duen baliabide propioa da. “Baliabide propio horren ezaugarriak onak badira eta tratamendu eta kontrol egokiekin egin badezakegu, zergatik ez dugu erabiliko gurea den ura?”, galdetzen du Udalak.


**Erroizpeko errekako aprobetxamendua edo kontzesioa 1973ean eguneratu zen. 75 litro/segundu da eta 99 urterako eman zen. Hau da 2072ra arteko emakida indarrean dago. Iturria: Usurbilgo Udala.**

Argi diote, inoiz ez diotela uko egin ur hau erabiltzeari, “ezta une larrienetan ere”. Are gehiago, azaroko gertakarien ostetik, “hona egindako ibilbide horretan, nolabait gure iritzi hura sendotu, berretsi, indartu egin da”. Argi diote Udaletik. “Lehen garbi ikusten genuen, gaur orduan eta garbiago ikusten dugu, Erroizpeko ura ur erabilgarria dela, Usurbilgo herriak duen ondasun garrantzitsu bat dela eta urte askoan Usurbilek ez dio uko egin ondasun horri. Nor gara gu horri uko egiteko?”.

*UDALA*

***“Ez diogu uko egiten gure ura erabiltzeari”, baina berme guztiak izan ostean. Bitartean, Añarbeko urak hornituko du herri osoa”***

Ur nahikoa bada gainera, “erabiltzen dena baino askoz kopuru handiagoa dago, horrek emari ekologikoa bermatzen du”. Alegia, erabilitako ur kopuruak ez duela kalte ekologikorik eragiten. “Ur oso ona dugu eta aprobetxatu behar da”.

Baina berme guztiak izan ostean izango da Erroizpeko ura edateko aukera. Pasa den udazkenera arte bezala, Erroizpeko ura erabiltzera itzultzea da helburua, “ez diogu uko egiten gure ura erabiltzeari”, baina berme guztiak izan ostean. “Prest gaude horretarako behar adina denbora hartzeko”, nabarmendu dute Udaletik. Bitartean, Añarbeko urak hornituko du herri osoa.

# Udala: “Kontrola asko zorroztuko da”

Zenbait hobekuntza egin asmo ditu Udalak, Erroizpeko uraren gaineko kontrola nabarmen zorrozteko helburuarekin:

■ Urtinea gaineko “San Esteban 1” depositura heltzen den ura aurrekloratuko da. Horretarako hainbat egokitzapen egingo dira. Uraren uhertasuna neurtzeko gailua jarriko da. Ura depositu honetara sartzerakoan ura uhartasun handiz badator errekara bideratuko da. Bestela aurrekloratu eta “San Esteban 2” depositura bideratuko da.

■ “San Esteban 2” depposituan, orain arte bezala ura tratatzen segiko da. Bi sarrera izango ditu urak, bi baso deposituak. Baso bakoitzak bere aldetik funtzionatuko du, “bakoitzak bere klorazio sistema eta neurgailu sistema izango du. Bukaeran uhertasuna neurtzeko beste aparatu bat egongo da. Baso batean bildutako ura Aginagara joango da zuzenean. Herrira joango da beste basokoa. Ur hori guztia edangarria izango da”.

■ Aipatu bi depposituon arteko komunikazio sistema ezarriko da.

■ Honez gain, alarma sistema aldatuko da. Aurrerantzean zehaztasun handiagoz jasoko ditu Udalak, alarma mezuak.

-Laburbilduz, inbertsioa nagusiki, aparailu mailakoa izango da.

**Añarberen funtzioa**

Usurbilgo udalerria Añarbe Mankomunitateko kidea da. Añarbek bi funtzio desberdin ditu Udalaren esanetan. Ura Añarbek berak ematen badu, kasu honetan, “ur hornikuntza eta kontrola beraiek egiten dute”. Erroizpeko urari dagokionez, Osasun Sailak izendatutako erakunde batek; kasu honetan, Añarbek. Erroizperen kasuan, Udalak Añarberekin Erroizpeko ura kontrolatu eta zaintzeko aktuazio programa bat hitzartua du, Osasun Sailaren onespenarekin.

## Argibide interesgarriak

**Usurbilgo ur hornikuntzaren sarea**

■ Usurbil urez hornitzen duten hiru ur depositu daude: Larbain eta Arratzaingoak (Añarbek hornituak), Erroizpe (errekurtso propioa).

■ Non zer ur edaten zen 2017ko azaroko gertakarien aurretik?

1-Larbaingo depositutik: Urbil, Arsuagaenea, Iartza auzunea eta Kalezar.

2-Arratzaingotik Arratzain inguruak.

3-Erroizpetik gainerako herri eremu guztia: Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga, Santuenea, Kaxkoa, Zubieta. (Oharra: azaroko gertakarien ostetik, herri osoak Añarbeko uretik edaten du).

**Erroizpeko ura**

■ Erreka eta lur azpiko ur naturalak biltzen ditu Erroizpeko presak.

■ Handik, Urtinea gaineko “San Esteban 1” depositura doa ura.

■ Hortik, Berritzabarrena gaineko “San Esteban 2” depositura. Bertan tratatu eta kloratzen da ura. Eta handik herriko txoko gehienetara zabaltzen da.

**Akatsa**

Alarma sisteman izandako akats baten ondorioz, ordu batzuetan ura gutxi kloratuta heldu zen iturrietara 2017ko azaroa hasieran. Ordutik, herri osoak Añarbeko ura edaten du soilik.

**Giltzen sistema**

Herriko kokagune ezberdinetan dauden giltzen sistema honi esker, herrian Añarbeko ura soilik edo Erroizpetik datorrena kontsumitu daiteke. Udalak herriak ura nondik edan kontrolatu dezake alegia. Giltzok urak gure iturrietara egiten duen bidea itxi edo irekitzen dute.

Datuen iturria: Usurbilgo Udala.

# Aginagako frontoi atzealdean estalkia jartzen hasi dira

Aginagako frontoira ura sartzea saihesteko estalkia jarriko dute pilotaleku atzealdean. Lanak abian ditu Murgil eraikuntzak, ia 40.000 euroko aurrekontua dute. “Metalezko egitura bat jarriko da, eta egitura horretan lona mikroperforatu bat jarriko da, estalki modura. Lona horretan aginagarrek aukeratutako argazki zahar bat inprimatuko da”.
Argazkiak: Usurbilgo Udala.



**Metalezko egitura bat jarriko da, estalki modura.**



**“Egitura horretan lona mikroperforatu bat jarriko da”.**

# Memoria historikoa lantzeko deia

Iragana ahaztu ez dadin, Usurbilgo memoria historikoa lantzeko deialdi irekiaren berri eman digu herritar batek NOAUA!n. 1936ko gerrari buruz lehendik egina dagoen lanketan sakontzeko, dagoen informazioa, lekukotzak, aztarnak bildu eta jasoa geratu dadin, lanketa hau guztia bideratu nahi da. Apirilaren 5erako (osteguna) 19:00etan Sutegin deitu duen aurkezpen ekitaldi batean eskainiko ditu zehaztasun gehiago. Deialdi irekia da aipatu moduan, interesa duen orori irekia egongo da ekitaldia.

## “Sagarrondotik Sagardora”, apirileko saioak

Alkartasuna Kooperatibaren ikastaroaren baitan, bi saio iragarri dituzte apirilean.

■ Apirilak 7: “Garbitasuna sagardoaren kalitatearen lagun. Sagardoa egurrezko ontzietan eta sagarrondoaren bizimodua”, Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondorekin.

■ Apirilak 21: “Ilargia eta egutegi biodinamikoa”, Xabier Akizurekin.

Izen ematea eta argibide gehiago:
943 361 114
alkartasuna@usurbil.com

## KzGunea, datozen ikastaroak

Martxoaren 27ra arte arratsaldez izango da zabalik KzGunea, 16:00-20:00 artean. Hilaren 28an, 29an eta apirilaren 2an itxita, jai egunak izango baitira. Apirilaren 3tik aurrera goizez irekiko dute, 09:00-13:00 artean. Honatx KzGunera datozen ikastaroak:

■ Martxoak 26-27, 18:00-20:00 “Online izapideak Osakidetzarekin”.

■ Apirilak 3-12, 09:00-11:00 “Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako”.

■ Apirilak 13-23, 09:00-11:00 “Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi”.

■ Apirilak 16-27, 11:00-13:00 “Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi”.

■ Apirilak 24-25, 09:00-11:00 “Eusko Jaurlaritza zure mugikorrean”.

**Informazio gehiago:**
Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net
kzgunea.eus

# Joxean Artze omentzeko prestatzen hasiak

Joxean Artze omentzeko prestatzen hasia da Usurbilgo herria. Antolaketa lanak bideratzeko lehen batzarra egin zuten martxoaren 13an, Usurbilgo Udalak deituta Potxoenean.

**Hurrengo bilera: apirilak 10**
Hurrengo bilera apirilaren 10erako finkatu dute 18:00etan Potxoenean baita. Hitzordu horretarako proposamen zehatzak eramateko deia egin da. Laster iragarriko dute bestalde, omenaldi egun zehatza noiz izango den.



**Apirilaren 10ean egingo dute hurrengo bilera eta laster iragarriko dute omenaldi egun zehatza noiz izango den.**

# Apirilaren 7an, "Harria Hitz" bisita gidatua osatzeko aukera berri bat

Usurbilek dituen altxorretan barrena ibilaldi interesgarria antolatu du Usurbilgo Udalak apirilaren 7an; "Harria Hitz" bisita gidatua, goizeko 10:00etan, Usurbilgo frontoitik abiatuta. Gehienez 25 lagunei zuzendua egongo denez, aurrez izena eman beharra dago.

"Gipuzkoako artista garaikideek nazioarteko ospe eta izena lortu zuten: Txillida, Oteiza, Mendiburu, Basterretxea... Arte-sorkuntzaren bidez gipuzkoar eta euskotar izateko modu bat asmatu eta zabaldu zuten. Mendibururen eskultura, Usurbilgo Plaza eta Zumetaren murala bisitatuko ditugu, hala sorkuntza-ondarearen arteko harremana aztertuz nola kultura-kontzeptuen hedapena azalduz". Honatx egitaraua:



**Usurbilgo frontoian elkartuko dira goizeko 10:00etan.**

*IZEN-EMATEA, AURRETIK*

***"Gehienez 25 lagunei zuzendua egongo denez, aurrez izena eman beharra dago"***

**Apirilak 7, larunbata**
■ 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
■ 10:15 TxTxTx (Txokoaldeko Txalaparta Txokora) bisita.
■ 11:30 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean.
■ 13:00 Zumeta Arte Estudiora bisita.
■ 14:15 Amaiera.

**Informazioa eta erreserbak:**
605 729 802, info@ereiten.com
Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

## "Oporrak Bakean"

Sorterriko bizi baldintza gogorretatik urruntzea ahalbidetzen die haur sahararrei, uda parterako antolatzen den "Oporrak bakean" egitasmoak. Haur sahararrak udako hilabeteetan etxean hartzeko aukera izango da aurten ere. Beharra bada; 130 familia behar dira, proiektu honetako sustatzaileek adierazi dutenez. Gai honen inguruko informazio gehiago udaletxeko gizarte zerbitzuetan jaso dezakezue. Bestela deitu 943 377 110 telefono zenbakira.

## Gazte Akelarrea, sarrerak Aitzagan salgai

Ernai eta Aitzina gazte erakundeek antolatuta, martxoaren 30etik apirilaren 1era Gazte Akelarrea Oiartzunen. Bonoak eta sarrerak ere Aitzagan dituzue salgai.

## Apirilaren 14an, "Gatz basatia" txotxongilo antzezlana Sutegin

Maitena Illarramendiren saioa, apirilaren 15erako antolatu du Usurbilgo Udalak, 17:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak 2 eurotan eskuragarri. "Gatz Basatia titiritorto bat da. Bertizeko oihanaren sakonean bizi diren izaki bitxiak dira titiritortoak. 40 zm neurtzen dituzte gutxi gora behera, begi bakarrak, berdeak eta horiak, isats luze batekin. Basoan kamuflatzen dira, horregatik buruan ilearen ordez landareak dituzte, batzuetan basafruitu eta guzti. Zuhaitzen barruan bizi dira, okilek egindako zuloetan".

# Eneritz Artetxe: “Ez da ohiko bertso eskola bat, jolasetik asko du, kantutik ere bai”

Lehen Hezkuntzako 2-3 mailetako ikasleekin bertsozale taldea sortu dute Udarregi Ikastolak Bota Punttubarekin elkarlanean. Ostegunero biltzen dira, eguerdietan, 13:30-14:30 artean, Agerialdeko geletako batean. Hurrengo ikasturtean, LH6ra arte luzatu nahi du Bota Punttubak eskaintza hau. Maiatzean ireki asmo dute izen ematea. Taldeko irakasle Eneritz Artetxek eskaini dizkigu egitasmo honen gaineko xehetasunak.



LH 2-3 ikasturteetako ikasleekin bertsozale taldea sortu dute Udarregin.

**NOAUA! Aurkeztu ezazu taldea.**

**Eneritz Artetxe:** Usurbilgo bertso eskolatik eta Udalak emandako diru-laguntzari esker sortu zen talde hau. Ikastolak gela hau uzten digu, eskola saioetarako. LH 2-3 mailako umeak dira. Egia da bertso eskolatan normalean ez dela ikusten hain adin txikiko ikaslerik, baina beraiekin batera ni ere piloa ari naiz ikasten. Helburua bertso zaletzea da. Bertso batzuk eta doinu batzuk egiten hasten baditugu ere, ondo pasatzeko tresna bat baino ez da bertso eskola hau.

**N. Astero saioa izaten duzue.**

**E. A.** Jangelatik irten eta berriz ikastolara sartu aurreko ordu hau baliatzen dugu. Ordubeteko saioa da. 14 ikasle dira, asko 7-8 urtekoak, horrek dituen alde onekin. Oso biziak dira eta ordubeteak ez digu askorako denborarik ematen. Ahalik eta ondoen aprobetxatzen saiatzen gara.

> ENERITZ ARTETXE
>
> ***“Urte piloak daramatzat bertso eskolako irakasle lanetan, eta hain adin txikikorik behin ere ez dut izan”***

**N. Ohikoa da adin tarte honetako ikasleekin halako lanketa bat bideratzea?**

**E. A.** Hezkuntza arautuan LH 5-6 mailatan lantzen dugu eskolako proiektu bezala eta bertso eskolatan ere normalean LH4tik aurrera ikasleak izaten ditugu. Urte piloak daramatzat bertso eskolako irakasle lanetan, hain adin txikikorik behin ere ez dut izan.

**N. Esperientzia berria zuretzat ere?**

**E. A.** Esperientzia berri bat. Irakatsi adina edo gehiago ikasten ari naiz kasu honetan, talde honekin. Bertsolaritzako irakasle bezala ez, baizik pedagogikoki eta didaktika moduetan.

**N. Horrek baliabideak sortu beharra ekarri du?**

**E. A.** Talde hau aitzakia hartuta, zer pentsatua eman digu, orain arte jardun duguna baino adin txikixeagoekin nola landu bertsolaritza, nola landu bertsogintza, bi gauza desberdin direlako. Agian bada guk geneukan hutsune bat, adin txikiko hauekin lantzea. Badira umeentzako sortak, jolasak, pasadizoak, baina bai egia da, metodologia zerotik sortzen, funtzionatzen ez duena atzera botatzen eta beste gauza batzuk probatzen ari gara. Kantatzea ikaragarri gustatzen zaie, asko asko eta justu une honetan bertso antzerki bat ari gara lantzen.

**N. Lanketa hau plazaratzeko asmoa duzue?**

**E. A.** Ikusiko dugu. Bertso antzerki polit bat ari zaigu geratzen. Ikasle hauen gurasoek merezi dute ikasturte bukaeran jakitea, bertso eskolan zer ari garen lantzen. Ikasleak ausartzen badira bai, ikasturte bukaeran gurasoentzat behintzat aurkeztuko dugun emanaldi txiki bat izango da.

## “Udalaren laguntza ezinbestekoa da bide honetan”

**NOAUA! Bertsozale harrobia bada beraz?**

**Eneritz Artetxe:** Zaletasuna nik uste baietz. Norberak erabakiko du bere bidea zein den, baina zaletasuna bermatua geratuko da behintzat. Beraiek diotenaren arabera behintzat gustura dabiltza. Ez da ohiko bertso eskola bat, jolasetik asko du, kantutik ere bai.

**Bertso zale elkarteko irakaslea zara. Eremu hau estrategikoa izango da aipatu elkartearentzat.**

Bai noski. Askotan esaten dugu pisurik handiena, bolumenagatik hezkuntza arautuan joaten zaigula, baina bertsolaritzaren ekosistema horrek bizirik iraungo badu bere osotasunean, oinarri sendo eta garrantzitsuenak, nola ez, bertso-eskolak dira. Bertso eskolatan sortzen direlako, ez bertsolariak bakarrik, bertso zale, epaile, gai jartzaile eta denak.

**“Saretzearen garrantzia”**

**Onuragarria izango da Bota Punttubak adin tarte ezberdinetan bertsozaletasuna sustatzeko egina duen apustua.**

**E. A.** Bai. LH 5-6 mailetan hezkuntza arautuan lantzen dute. Bertso eskolan daude LH 2-3 mailetakoak, eta gero helduen bertso eskolak ere jarri ditu martxan herri mailan. Usurbil bezalako herri baten bertso mugimendu hori saretzeko eta sustatzeko pauso garrantzitsuak ari dira ematen eta udalaren laguntza ezinbestekoa da bide honetan. Eskerrak eman besterik ez dugu Udalari eta herriko bertsozaleei.

# Eli Pagola: “Taldea sortzen ari da, hori zen garrantzitsuena”

Astearteetan biltzen da Potxoenean Bota Punttubaren helduen taldea. Talde oso bertsozalea, bideratzaile lanetan dabilen Eli Pagolak lerrootan NOAUA!ri adierazitakoaren arabera. Bertso-eskolako ateak zabalik segitzen du kide berrientzat.

**NOAUA! Hilabete batzuk badira helduen taldea abiatu zenutela. Forma hartua du zuen taldeak?**

**Eli Pagola:** Bai, jada gure artean ere konfiantza giroa sortu dugu eta badoa forma hartzen.

**N. Aurreko etapako kideak eta kide berriak bildu dituzue. Taldeak zer berezitasun ditu?**

**E. P.** Oso desberdinak diren lagunak bildu dira; bi bizkaitar daude, beraien egunerokotasunean nahiko praktika ezberdinak dituen jendea… Nik uste eskola kurioso horrek egiten du, bertsolaritzarekin oso lotura ezberdina dute denek.

**N. Era berean horrek taldea aberastuko du?**

**E. P.** Bai. Gero gertatzen zaigu, moldatu behar izaten denean denon gustura edo denei aportatuko dien zerbait, hor bada lan pixka bat egin beharra. Baina aberatsa bada.

**N. Ahozko eta idatzizko komunikazio lanketa egingo duzue astero.**

**E. P.** Guk batez ere ahozkoa egiten dugu. Besteak beste, idatziz horretarako gogoa baduzu landu dezakezu bakarka. Gero norbaitekin komentatu nahi baduzu, hor ere bertso eskolak badu bere funtzioa. Baina bertso eskolan gehienbat bat batekoan zentratzen gara, ze bertso bat etxean idatzi dezakezu, baina zeinekin kantatu behar duzu? Bat batekotasunean zentratzen gara eta ariketa desberdinekin, kantatu, berriketa pixka bat egiten dugu, arinagoa izate aldera.



Bertso Eskolako kideak asteartero elkartzen dira Potxoenean, 19:00etatik 20:00etara.

*ELI PAGOLA*

***“Guk batez ere ahozkoa egiten dugu. Ze bertso bat etxean idatzi dezakezu, baina zeinekin kantatu behar duzu? Bat batekotasunean zentratzen gara eta ariketa desberdinekin, kantatu, berriketa pixka bat egiten dugu, arinagoa izate aldera”***

**N. Ahozkotasuna lantzen duzue, ez soilik bertsoak botatzen ikasteko, hizkuntzarekin jolastu eta trebatzeko baita?**

**E. P.** Hori da bere funtzio nagusia. Bertsotan sartu behar zara molde jakin batzuetara eta horretarako trebatu egin behar da. Hori da batez ere egiten duguna, egoera desberdinetan diskurtso bat nola garatu dezakezun ikasi, pauta jakin batzuen arabera.

**N. Ikasturte erdia pasata, hasieran finkatutako helburuak betetzen doaz?**

**E. P.** Helburua edo behintzat egin nahi zena zen hastea, eta hasi eta jarraitzen dugu, bajarik ez da egon. Ondorioa, taldea sortzen ari da, hori zen garrantzitsuena.

**N. Aurten abiatutako lanketari jarraipena emateko asmoa duzue?**

**E. P.** Egia esan, ez dut uste hori neure kargu bakarrik dagoen kontu bat denik, eta ez dugu asko hitz egin ere, baina ibilbidea izan dezakeela dudarik ez dut egiten. Oso bertso zalea den talde bat da eta hortik kanpora ere nabari da herrian badagoela zaletasun minimo bat.

## Bertso eskolara batu nahi duenak, ateak zabalik ditu

**Apirilaren 14ko bertso bazkaria antolatu duzue ikastolarekin elkarlanean.**

**Eli Pagola:** Garrantzitsua da baita herrian bertso eskola bat dagoela ikustea, badagoela jendea hor lanean ari dena. Nik uste dut elkarlan hori beharrezkoa izango dela, kultur elkarte guztiekin den bezala, Usurbilgo bertso eskolak Usurbilen ere bere lekua egin dezan.

**Ikasturtean abian izan arren, ateak zabalik dituzue kide berrientzat.**

**E. P.** Etorri dadila astearteetan (19:00-20:00 artean Potxoenean). Maila desberdinak daude eta horretara moldatzen gara. Ez dezatela itxaron hurrengo urtera arte.

# Azoka solidario arrakastatsua

Arrakastatsua suertatu zen, Udarregi Ikastolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek martxoaren 16an frontoian antolatu zuten azoka solidarioa. Berehala agortu ziren, ikasleok eskuragarri jarri zituzten, pultsera, pintxo eta objektu kuttunak. Gogoan izan, bildutako laguntza, behar bereziak dituzten haur eta gurasoen Pausoka Elkartera bideratuko dute.

Pausoka Elkarteko kideak ere frontoian bertan ziren, haien produktuak saltzen eta informazioa eskaintzen. Gustura haiek ere. Eta antolatzaileak baita, ikastolan gai honen inguruan egin duten lanketa plazaratuz, izan duten harrera ikusita. Lehenbizi Sutegin azalpenak eskaini zizkieten ikasleek gurasoei. Gero, aipatu moduan, postuak jarri orduko, azkar batean agortu ziren eskuragarri zeuden produktuak.


Errifa solidarioaren zozketa ostiralean egin zuten. Sariak jasotzeko epea martxoaren 22an amaituko da.

**Errifa zozketa**

Azoka solidarioan herriko kirolarien materiala eskuratzeko aukera eskaintzen zuen izaera bereko errifa zozketa solidarioa ere antolatu zuten. Segidan dituzue, zenbaki sarituak. "Saria jasotzeko epea martxoaren 22an amaituko da. Hortik aurrera, ordezko zenbakiak jarriko dira indarrean apirilaren 12ra arte. Saria idazkaritzan jasoko da", ohartarazi dute Udarregi Ikastolatik.

*ARRAKASTATSUA*

***"Frontoian postuak jarri orduko, azkar batean agortu ziren eskuragarri zeuden produktuak"***

- Axi Zubiriaren elastikoa: 4951.
- Imanol Agirretxe, poloa: 3370.
- Imanol Agirretxe, poloa: 3391. Ordezkoa: 2003.
- Imanol Agirretxe, txaketa: 4621.
- Imanol Agirretxek sinatutako elastikoa: 2553.
- Xabi Santxok sinatutako elastikoa: 2857.
- Xabi Santxo, pilota: 2099.
- Xabi Santxo, pilota: 3321. Ordezkoa: 1545.
- Xabi Santxo, pilota: 4879.
- Xabi Santxo, pilota: 2006. Ordezkoa: 2145.
- Esther Arrojeria, elastikoa: 3088. Ordezkoa: 1664.
- Estitxu Berasategi, elastikoa: 4063. Ordezkoa: 0287.
- Haimar Zubeldiaren elastikoa: 0433. Ordezkoa: 1532.
- Martin Alustiza, Aspeko kami seta: 3929. Ordezkoa: 0772.
- Martin Alustiza, Aspeko pilota: 4397. Ordezkoa: 3729.

**ASPANOGIren hitzaldia, Hitz Ahok antolatuta**

Hitz Aho Udarregiko guraso elkarteak haur minbiziari buruzko hitzaldi bat antolatu du. Apirilaren 18an asteazkena, arratsaldeko 17:00etan Udarregi eraikinean. ASPANOGI elkarteko kideek hartuko dute parte. "Haur minbiziak eremu ugari ikutzen ditu: emozioak, familia, hezkuntza, ekonomia, lana, gizarte harremanak... Hitzaldi honetan zuen itxaropena eta parte hartzea bultzatu nahi dugu, denok elkarturik lagundu diezaiegun ASPANOGIko pirata eta familiei", Hitz Ahotik jakinarazi dutenez.

# Ikastolaren 50. urtemugan, bertso-bazkaria

Ospakizun urtea du Udarregi Ikastolak, 50. urtemugara heldu baita. Ikastolaren mende erdia ez da oharkabean pasako. Hainbat ekimen berezi antolatzen ari dira hurrengo hilabeteotarako. Tartean, punta-puntako bertsolariek girotuko duten bazkaria antolatu du Udarregik apirilaren 14rako 14:30etan ikastolako jangelan, Bota Punttuba bertso eskolarekin erkarlanean, eta Aratz erretegiaren, Labe Goxoren, Mitarte bodegaren eta Usurbilgo Udalaren laguntzaz.

**Egaña eta Lujanbio, kantari**

Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio gonbidatu dituzte bertso-bazkari honetara. Adi, Zabaleta anaiek prestatuko duten menua dastatu eta bertso saio ederraz gozatzeko txartelak aurrez eskuratu beharko dira, Bordatxo eta Aitzaga tabernetan, edota Udarregi Ikastolako idazkaritzan.

**Txartela, laster salgai**

Egunotan jarriko dituzte salgai, 20 eurotan. 15 eurotan, haur, ikasle eta langabetuentzat.


Maialen Lujanbio etorriko da kantatzera. Argazkia: bertsoa.eus


UDABERRIKO
ESKAINTZA:
GERANIO m14
1,95€!
URTINEA
Jantzi kolorez zure etxe,
balkoi zein lorategia!
Era guztietako aukerak oparitzeko:
garaiko loreak, frutarbolak, loreontziak,
lore-sortak...
San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55


GOLDWELL
ELUMEN
ileapaindegi
mistoa
Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrrak
Zubiaurrenea 4, 943 361 951
mistoa


BAZKIDEEN TXOKOA
noaua
martxoaren 23an ZOZKETATUKO dugu:
URDAIRA
SAGARDOTEGIAN
2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria
NOAUArekin
TXOTX!
noaua! euskararen aterpe
bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

## Asier Zubiria Aierbek eskubaloia utziko du denboraldi amaieran

# “Hartutako erabakiarekin asmatu egin dut”

Duela zazpi urte, Bidasoara bueltatu zenean, taldea egoera zailean zegoen. Bigarren Mailari eusteko lan handiekin. Taldea hazten joan zen eta duela bi urte Lehen Mailara igotzea lortu zuten. “Asobal Ligara igo ginenean, orduan hasi nintzen agur esateko une egoki bat topatzeko garaia zela pentsatzen. Eta oraintxe suertatu da”.



Bidasoa eskubaloi taldeko kapitaina da gaur egun. Aurten hartuko du erretiroa.

**NOAUA! Damutzeko garaiz zabiltza oraindik.**

**Asier Zubiria.** Atzera bueltarik ez du. Oso ondo hausnartutako erabakia izan da. Gainera, gero eta konbentzituago nago. Gabonetan jakinarazi nion klubari erabakia, baina erretiroaren ideia buruan nuen bueltaka. Urtebete lehenago edo. Mundu guztiak jakin du oraintxe eta geroz eta konbentzituago nago; jendearen erantzunak ere asko lagundu dit. Gero eta argiago dut asmatu egin dudala erabakiarekin.

**N. Normalean, denboraldi amaieran iragartzen dira horrelakoak. Zurea ezberdina izan da. Bidasoak beste atezain bat fitxatu zuen urtarrilean. Zeresana eman zuen horrek eta handik gutxira iragarri behar izan zenuen erretiroa. Kanpotik begiratuta, arraroa dirudi.**

**A. Z.** Gabonetan, klubarekin hitz egin nuenean, denboraldi amaieran edo taldearen helburuak betetzean iragarriko genuela adostu genuen. Bilatuko genuela momentu egoki bat. Ez nuen prentsaurrekorik emateko asmorik, prentsa-ohar sinple batekin jakinarazteko asmoa nuen. “Agur, banoa, eskerrik asko denagatik” eta listo. Baina gauzak horrela suertatu dira. Taldeak lanean jarraitu behar du etorkizunari begira. Atezain bat fitxatzeko aukera suertatu zitzaien, gauza oso normala ez dena, baina aukera ona zen klubarentzat. Udara arte itxaron izan balute, akaso bera fitxatzeko aukera hori galduko zuten. Fitxaketak esamesak ekarri zituen eta horren aurrean erabaki nuen prentsaurrekoa eskaintzea.

> ASIER ZUBIRIA AIERBE
>
> ***“Duela bi urte, Asobal ligara igo ginenean, orduan hasi nintzen agur esateko une egoki bat topatzeko garaia zela pentsatzen. Eta oraintxe suertatu da”***

**N. Zure burua behartuta ikusi zenuen, hortaz.**

**A. Z.** Bai, gauzak nola izan diren azaltzeko beharra sentitu genuen. Kluba eta nire artean gauzak oso garbi zeuden aspalditik.

Denbora generamatzan honetaz hizketan eta ondo bideratuta zegoen dena. Esamesak moztu nahi nituen, bestela denboraldia oso luzea egingo zen denontzat.

**N. Eskubaloia utziko duzu taldeko kapitain izanda eta taldea Lehen Mailan utziz.**

**A. Z.** Hori dena kontuan hartu dut.

**N. Jakin behar da agur esaten.**

**A. Z.** Hala da. Eta hori izan da arrazoietako bat. Maila honetan hasten zarenean, 18 urterekin edo, ez dakizu zure kirol ibilbidea nondik nora joango den. Ezta nola eta noiz bukatuko den. Baina behin adin batera iristen zarenean, hasten zara amaiera hori nola nahiko zenukeen imaginatzen. Eta azken urteotan erreflexio hori egiten aritu naiz. Eta duela gutxi, argi samar ikusten hasi nintzen: Bidasoa egoera onean utzita, Asobal Ligan, nire helburu indibidualak eta kolektiboak asetuta.

## “Usurbilen bezala ez dut beste inon gozatu”

**NOAUA! Lagunekin hasiko zinen eskubaloian, baina elitera iritsi den bakarrenetakoa izango zara.**

**Asier Zubiria.** 9 urterekin hasi nintzen eskubaloian. Asko gozatzen nuen. Entrenamendu eguna iristeko desiatzen nengoen. Santuenean entrenatzen genuen. *Euria egiten badu ez etorri,* esaten ziguten. Hala ere, badaezpada joan egiten nintzen eta mila bider pasa zitzaidan, euripean joan, iritsi, buelta erdia eman eta etxera. Entrenatzeko desiatzen nengoen beti. Baina helburu jakinik gabe. Udan, nire koadrilakoak Ziortzako kanpalekura joaten ziren eta ni berriz, Euskadiko edo Espainiako selekziora, kontzentrazioan.

14-15 urterekin, talde handiak hasi zitzaizkidan deitzen. Bidasoa, Arrate eta baita kanpoko talde batzuk ere. Oso gaztea nintzen eta burua berotzen hasi zitzaizkidan. Gauzak imaginatzen hasi nintzen baina eskerrak gurasoak hor dauden. Frenatzeko. 17 urterekin hartu nuen saltoa emateko erabakia.

**N. Bidasoara joan eta, bapatean, puntako jokalarien ondoan.**

**A. Z.** Bai, telebistan ikusten nituen horiekin guztiekin. Shock modukoa izan zen. Hain idealizatuta nuen dena, gero bertara iritsi eta desengainoa pixka bat hartu nuen. Ez zela hainbesterakoa. Beti esan dut, Usurbilen bezala ez dudala beste inon hainbeste gozatu. Hain ondo pasa nuen hemen... Beste eskubaloi mota bat topatu nuen profesionaletan. Beste presio bat, beste exigentzia bat, lehiakortasuna... Eta hasieran kosta egin zitzaidan. Baina denborarekin, presio horrekin ere disfrutatzen ikasi nuen.

# “Entrenatzaile denekin ikasi dut zerbait”

**NOAUA! Zure taldekide zirenak, zure jarraitzaile izan dira gero. Zure bitartez mantendu dute kirolarekiko lotura hori, ezta?**

**Asier Zubiria.** Hori da. Orain dela gutxi arte, baten bat egon da oraindik Usurbil KE taldean. Aitor Izagirre, adibidez. Kapitain izan da ez dakit zenbat urtetan. Beti esaten zidan, *“hi Axi, erretiratzen haizenean, urte bat jolastu ezak hemen nirekin eta biak batera erretiratuko gaituk!”*. Baina ez zuen aguantatu eta lehenago utzi zuen berak.

Nire koadrilako askok eskubaloian jolastu dute. Lanak, ikasketak… Oso ibilbide ezberdina izan dugu gero. Baina etortzen dira Artelekura eta oso gustura egoten dira.

**N. Bidasoara iritsi arte, entrenatzaile asko izan zenituen. Denekin akordatuko al zinateke?**

**A. Z.** Gonzalo Brea, Pako Agudo, Mariño, Jon Gallego *Jota*, Kerman Errekondo, Iban Maritxalar, Rafa, Manzano, Ramon Unanue, Antonio Castro,… Entrenatzaile asko izan ditut. Familia giroan bizi genuen eskubaloia. Oso ume ginen baina asko gozatzen genuen kanpora joaten ginenean. Kotxez edo autobusean, batetik bestera. Gozamena zen. Oso oroitzapen onak dauzkat nire koadrilako jendearekin. Denekin ikasten duzu zer edozer.

Entrenatzaile denak oso ondo portatu ziren nirekin. Konfidantza handia eman zidaten eta denekin ikasi nuen zerbait.



Gaztetako garaiak ondo gogoan ditu. “Familia giroan bizi genuen eskubaloia”, halaxe aitortu digu Asier Zubiria Aierbek.

ASPALDIKO OROITZAPENAK

*“Larunbat arratsaldea partidak ikusten pasatzen genuen. Atsedenean behera jaitsi, Lauroken litxarreriak jan eta berriro gora. Arratsalde pasak horrela izaten ziren”*

**N. Geroztik hona, gauzak dezente aldatu direla dirudi. Orain lehiakortasuna da nagusi.**

**A. Z.** Asko aldatu dira gauzak. Azken urte hauetan askotan izan dudan eztabaida izan da. Gazteen partidak ikustera joaten naiz, baina ez gehiegi. Giroa ez dudalako gustuko. Alde horretatik, oso kritikoa naiz harmailetan egoten den giroarekin.

**N. Maiz, gurasoek eraginda.**

**A. Z.** Gehienetan. Umeek sufritzen duten exigentzia edo presio hori ezin dut ulertu. Horrelako partida batean izan nintzen azken aldia hemen izan zen, Usurbilen. Gipuzkoako Txapelketako finala jokoan zen eta Bidasoa eta Zarautz, aurrez aurre. Harmailetan zegoen tentsioarekin harrituta geratu nintzen. Ezin nuen ulertu.

**N. Harmailetako tentsio hori transmititu egiten zaie gazte gaztetatik.**

**A. Z.** Bai ba. Partida amaieran, galdu zuten umeak negarrez, eta irabazleak kopa nola altxatzen zuten… Guk ez dugu hori bizi izan. Irabazi edo galdu, ez dugu sekula negarrik egin. Ez dugu tentsio hori bizi izan. Asko aldatu da hori.

**N. Garaian garaikoa beharko luke.**

**A. Z.** Usurbilen gozatu egiten nuen. Desiatzen nengoen entrenatzeko edo partidak jokatzeko. Ez nuen beste helburu jakinik. Liga Vascan geundenean, ia ez genuen partidarik irabazten baina berdin-berdin zitzaigun, oso ondo pasatzen genuen. Hori asko aldatu da.

## “Eskubaloiko jendeak uste du ni irundarra naizela”

**NOAUA! Hainbeste urte Bidasoan. Irungoa zarela pentsatuko dute batzuk.**

**Asier Zubiria.** Agurreko prentsaurrekoan aipatu nuen. Gaztetan Bidasoatik atera nintzenez, eskubaloiko mundu guztiak uste du ni irundarra naizela. Askotan irakurri edo entzun behar izan dut. Ez naiz deseroso sentitu horregatik baina prentsaurrekoan nabarmendu nahi izan nuen. Mundu guztiak jakin dezala Usurbilgoa naizela, bertako harrobikoa, eta Usurbilen bizi naizela.

**N. Zer egingo duzu aurrerantzean? Egunotan maiz egin dizuten galdera da hau, ezta?**

**A. Z.** Jarduera Fisikoa eta Kirol Zientziatan lizentziatua naiz eta master bat ere badut egina. Etorkizunean hortik jo nahiko nuke. Ideiak baditut buruan baina orain kirol ibilbidea amaitu nahi dut.

**N. Urteotan zu ikustera joan izan direnei zer esango zenieke?**

**A. Z.** Eskerrik asko. Beti nabaritu izan dut euren babesa, urruti edo etxe inguruan egon naizenean. Hauspo hori beti sentitu dut eta oso harro sentitu naiz usurbildar izateaz eta asko eskertzen dut nire lagunen nahiz pertsonalki ezagutzen ez ditudan pertsona horien babesa jaso dudalako. Asko gozatu dudala eta noizbait partidaren batean emozioren bat transmititu badiet, gustura nagoela horrekin.



# Laburrean

**Atezain bat.** Gurutz Aginagalde eta Javi Barreto.
**Jokalari bat.** Jon Azkue oriotarra.
**Entrenatzaile bat.** Antonio Castro.
**Kantxa bat.** Santuenekoa.
**Une garrantzitsuena.** Donostian, San Inazio ikastolako kantxan. Partida hasi aurretik, entrenatzaileak zera galdetu zien nire taldekideei: nor nahi duzue atezain jokatzea? Taldekide denek nire izena esan zuten. 9 urte izango genituen orduan. Atezain izan naiz geroztik. Nire lagunei esker, neurri handi batean.
**Une zailena.** Talde bat utzi eta beste batera joateko unea.





Iñaki de Mujika

# “El Niño”

Ekaitza betean, kostaldea zigortzen duen urakan izugarri horietako baten izena dirudi *El Niño-k*, baina kasu honetan kariño handiko izengoitia da. Bidasoako jokalari beteranoek ipini zioten, Axi Zubiria Irungo aldagelara iritsi berritan. Orduko taldeko gazteena zen. Mandatuak egitea zegokion, poltsak betetzea, bromak jasatea... Hasiberri bati dagokion gidoia jarraitzea egokitu zitzaion, noizbait handi izatera iritsiko zen gazte baten patua.



Otsailaren 20an iragarri zuen agurra, prentsaurreko baten bidez.

Urteak pasa ondoren, eta bidean zailtasun ugari gainditu ondoren, talde bereko kapitaina da eta bere azalean ageri dira igarotako garaien aztarnak.

Urte asko daramatzat bere aldamenean. Uste dut ezagutzen dudala. Partida ikaragarrien lekuko izan naiz eta, era berean, taxi bat geratzeko kapaza ez zen partidarik ere ikusi diot. Hori da gutxienekoa, edozein kirolariren ibilbideari dagokion zerbait da hori. Pertsona da interesatzen zaidana. Pentsatzen duena eta sentitzen duena lasaitasun osoz azaltzeko gai dena. Zugan konfidantza duena, gaur egungo gizartean hain gutxietsia dagoen bertutea.

## KIROLARI MIRESGARRIAK

***“Mikel Aranburu eta Axi Zubiria bezalako pertsonek bidea erakusten digute, eta bidexka estuetako sastrakak garbitzen dizkigute. Hor daude beti, eskua emateko eta aurrera egiten laguntzeko”***

Normalean, behatu egiten du. Begiratu. Aditu. Badirudi ez dagoela baina dena du kontrolpean eta gutxien espero duzunean agertzen da. Esperientzia bertute handia da. Pilatutako jakinduria besteekin partekatzen du, bere taldekideekin eta bere lagunekin. Sekretu bat gordeko du azken minutura arte, konfidantzari ez dio sekula kale egingo eta beharrezkoa den guztietan zure aldamenean egongo da beti.

Tolestura gabeko pertsona da. Umila, erraz maitatzekoa. Orain, eta bere kabuz, maite duen kirol jarduera uztea erabaki du. Pertxak eta bere takilla libre geratuko dira hilabete gutxi batzuk barru. Hustu egingo ditu, baina bertan geratuko da konpromisoaren usaina betiko, momentu bakoitzean dena eman duenaren ondarea. Baita desanimoa nagusi zen garaian egindakoa ere.

Miretsi, baloratu eta maite dut. Handia izan daiteke bat titulurik irabazi gabe (bere ibilbidean bada titulurik). Duela aste batzuk, agurreko prentsaurrekoan izan nintzen eta era horretan nire babesa azaldu nahi izan nion. Hogeitamar urtetik gora daramatzat kirolari lotuta eta soilik bitan egon naiz tankera honetako prentsaurrekoetan. Lehena, Realeko kapitain zen Mikel Aranburuk erabaki berbera hartu zuenean. Bigarrena, Axik duela gutxi eskainitako prentsaurrekoan. Konpromisoz, kuraiaz eta osotasunez eramandako bi besoko. Horrelako pertsonek bidea erakusten digute, eta bidexka estuetako sastrakak garbitzen dizkigute. Hor daude beti, eskua emateko, eta aurrera egiten laguntzeko.

Seriotasun honen guztiaren erdian, Axik badu alde atsegin, festazale eta jostalari bat. Zerbezak eta parrandak partekatzeko uneak. Disgustuak alde batera uzteko edota eguneroko gauzen apaltasun eternala ospatzeko. Aurrekoan esan nizun bezala, Axi: hainbeste gauzengatik, eskerrik asko.

**Iñaki de Mujika, Noticias de Gipuzkoa eta Onda Vasca-ko kirol kazetaria (erredakzioan itzulitako idatzia).**









# Burunzazpi, bidera irteteko prest

Azken aldian bezala, Oiardo Kiroldegian, babesean aurkitu ditugu entrenatzen. Beharko, bizi dugun negu giro honekin. Baina kirol instalakuntzetako lau hormetatik irteteko gogotsu dira. Asteburuan izango den ordu aldaketaren ostean, beranduago ilunduko duenez, Zumartegi industriagunean aurkituko dituzue hurrengo asteetan, entrenamendu saioetan.

Baldin eta eguraldiak laguntzen badu, Luken Carbayeda taldeko entrenatzaileak adierazi digunez. “Negua txarra izan da, horregatik Kiroldegian serieak egiten aritu gara”. LH 5. mailatik DBH2ra arte, 11-14 urte arteko alebinak eta infantilak dituzte bilgunean. Gehienei galdetuta, etxetik, senideengandik jaso dute txirrindularitzarako zaletasuna, edota baita hedabideetan ikusitakotik ere.

Kirol jarduera eta ikasketak egoki uztartzea lehenesten dute Buruntzazpin, “hori uztartuz ahalik eta ondoen prestatu pertsona bezala eta gero 18 urtetik gora serioago hartu nahi bada, serioago hartu gauzak”. Bitartean, txirrindularitzaz gozatu, diziplina hartu eta ondo pasatzeko tartea eskaini nahi die Buruntzazpik.



Usurbilgo Udalak eskaintzen dien laguntza eskertu nahi du Buruntzazpi taldeak.

**Lasterketa Usurbilen, apirilaren 7an**

Aipatu moduan, eginiko lanketa plazaratzeko aukera izango dute udaberri honetan. Lasterketez jositako urte garaia datorkie, Buruntzazpi txirrindulari taldeko kideei.

“Martxotik hasita ekainera arte, gutxi gorabehera astero izango dugu lasterketaren bat”, aipatu digu taldeko kide Eneko Arangurenek.

Oiartzun, Errenteria eta Hondarribia aldean ibiliak dira azken aldian. Gipuzkoan barrena herri desberdinetan, gehientsuenetan industriaguneetan, antolatuko dituzten zirkuituetan parte hartuko dute hurrengo hilabeteotan. Besteak beste, Usurbilen ere jokatuko da lasterketa; apirilaren 7an, arratsaldeko 16:30etan hasita, Zumartegi industriagunean. “Denak gonbidatuak daude laskerketa ikustera”, hortxe Buruntzazpi taldekoen deialdia.

*FILOSOFIA*

***“Txirrindularitzaz gozatu, diziplina hartu eta ondo pasatzeko tartea eskaini nahi die Buruntzazpik gazteei”***

Agendan duten hitzordu garrantzitsuena ordea, maiatza erdialderako aurreikusia dute; Gipuzkoako Txapelketa hain zuzen. “Goierri, Deba aldekoak eta Urola Kostakoak, hiru zonaldeak batzen gara. Urteko karrera garrantzitsuena litzateke”, adierazi diote Buruntzazpiko kideek NOAUA!ri.

Ekitaldi hauekin batera, gaineratu dutenez, “mountain bike-eko lasterketa batzuk ere egiten ditugu”. Hitzordu gehiago. Astebete barru, Espainiako Txapelketa jokatuko dute zenbait kideek Euskadiko selekzioarekin.

Buruntzazpikoen lasterketak ikustera hurbiltzen dena, txirrindulari taldean parte hartu eta “probatzera animatzen bada, hemendik aurrera 18:30etan astelehen eta ostegunetan Zumartegi industriagunean bilduko gara. Gero batzuetan Urdaiagara igo, besteetan Zubieta aldera joan, edota industriaguneetan bueltaka hor ibiltzen gara”.

**Kadete mailako kideak**

Kadete mailako bost txirrindulari ditu Buruntzazpik: Asier Pozo, Markel Aristegi, Beñat Carbayeda, Jaime Romero eta Yerai Chango. Eta haiekin ondoko irudietan dituzuen kideak: Xabat Zuriarrain, Aitor Alonso, Markel Tamayo, Unai Orbegozo, Julen Orbegozo, Julen Sarasa eta Eneko Aranguren.

## Sorosle eta lehen sorospenen ikastaroa DYAk Usurbilen duen egoitzan

DYA Gipuzkoak antolatuta, apirilaren 7tik 28ra, larunbatero, 09:00-13:00 eta 15:00-19:00 artean, Munalurra 26ko egoitzan. Herritar orori zuzendua egongo den ikastaroa euskaraz izango da. Matrikulazioaren kostua 110 euro, ikastarorako txostena prezioaren barne dela. Ikasle kopuru mugatu batentzat egongo da lekua, “ematen den ikastaroaren kalitatea bermatzearren”. Izena eman edo argibide gehiagorako, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira. “Ezagupen oso arruntak baina laguntza asko eman dezakete, oso modu eroso eta atsegineak erakusten dira eta teoria eta praktika alderdiak ikutuaz”. Ikastaro amaierako froga gainditzen dituenak, “DYA Gipuzkoak eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera izango du”.

# Puntu beltzik gabeko herri seguruaren alde

Herri agerraldi jendetsua egin zuten martxoaren 17an frontoian, puntu beltzik gabeko Usurbil nahi dutela galdegiteko. "Ez dugu onartzen gure segurtasunarekin jokatzea". Trenbide eta errepideko pasabideetako segurtasun falta salatu eta neurriak hartzea eskatzen diete erakundeei.

"Gaur plazaratutako aldarriarekin ahalik eta usurbildar gehienek bat egitea nahiko genuke". Horretarako, ostegunerako, martxoak 22, bilera irekia deitu dute 19:00etan Potxoenean "gai honekin herrian zer antola dezakegun guztion artean" erabakitzeko. Honatx larunbatean plazaratutako adierazpena:




**Trenbide eta errepideko pasabideetako segurtasun falta salatu eta neurriak hartzea eskatzen diete erakundeei.**

## "Herri jasangarria eta segurua nahi dugu"

"Kezkatuta gaude Usurbildarrak. Kezkatuta eta akituta. Gutariko askok gure bizitza egunero arriskuan jarri behar izaten dugu lanerako edo ikastetxerako bidean, baita aisialdi ibilaldietan ere, pasabide oso arriskutsuak batere babesik gabe zeharkatzera behartuta gaudelako. Aspaldikoa da arazoa, baina urteak joan eta etorri konponbiderik gabe jarraitzen dugu berdin berdin. Eta jada oso haserre gaude.

N-634 errepideak eta trenbide-sareak gure herria zeharkatzen dute alderik alde hainbat puntu beltz hilgarri sortuz. Duela hamarkada ugari eraiki zen errepide hori, eta Euskal Herria lotzeko pasabide sare garrantzitsuetako bat izan da. Gaur egun, ordea, bestelako errepide-sare batzuk eraikitzearen ondorioz, galdu egin du funtzio hori hainbat eta hainbat tokitan; Usurbilen, aitzitik, berdin antzera jarraitzen dugu. N-634 errepide zaharrak gure herrian trafiko-bolumen handia du oraindik ere, eta etengabekoa da egunerokoan ibilgailuen joan-etorria. Zarata, auto-istripuak, kutsadura, segurtasun eza... eragiten ditu eta, oinezkoen pasabideak kasik ez dira moldatu urte luze hauetan guztietan. Errepide horrek, ez ditu gure herriko mugikortasun-beharrak asetzen.

Izan ere, azken hilabete luzeotan hainbat herritar eta udala eskuz esku aritu dira hausnarrean Usurbilgo espazio publikoaren antolamendu berria diseinatzen, eta mugikortasunaz ateratako ondorioek bat egiten dute gure haserrearekin (...):

-hainbat eta hainbat gune ez dira seguruak herritarrentzat, are arriskutsuagoak emakumeentzat, eta ez dira guztiontzat irisgarriak.

-Gainera, gure inguruko herri eta hiriak bezalaxe, Usurbil motordun ibilgailuen mugikortasunerako soilik dago egituratuta. Eta hori oztopo handia zaigu beharrezko ditugun mugikortasun seguru eta sostengarriagoak (oinezko eta bizikletazko desplazamenduak adibidez) sustatzeko epe motz eta ertainean.

Bestelako alternatibarik ezean, oraindik ere gure bizia kinkan jarriz bai errepidea bai trenbidea gurutzatzera behartuta gaude herritarrak gure eguneroko joan-etorrietan. Eta ez dira gutxi, alajaina! (...).

Egoerak ezin du horrela jarraitu: haserre gaude jada.

Horregatik, instituzioei eskatu nahi diegu egoera honekin bukatzeko. Erakunde ororen lehentasuna behar du izan herritarron segurtasuna, eta, horregatik, gure segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriak hartzeko exijitzen diegu Usurbilgo Udalari, eta bereziki Gipuzkoako Diputazioari eta Eusko Jaurlaritzari. Zentzu horretan;

1) Troiako pasabide berriari heltzeko eskatzen diogu ETSri, eta batez ere Gipuzkoako Diputazioari. Jakin badakigu ETSk baduela Troiako pasagunerako proiektu bat eta diputazioarekin liskarrak izan direla berriki honen inguruan. Ez dugu onartzen gure oinarrizko segurtasunarekin jolasean aritzea! Alderdikeriak utzi eta lan egin ezazue behingoz herritarren onura lehenetsita zuen interes politikoen gainetik. Halaber, plan bat eskatzen diogu ETSri gainerako pasagune arriskutsuak ere ezabatzen joateko.

2) N-634 errepidearen egoera eta funtzioa berraztertzeko eskatzen dugu. Gaur egun badira alternatibak errepide horrentzat, eta ez dago zertan zirkulazioa gure herrietatik bideratu. Horregatik, hainbat ibilgailurentzat neurri murriztaileak hartzeko eta zirkulazioa lasaitzeko neurriak hartzeko eskatzen diogu Gipuzkoako Diputazioari. Gure bizi kalitatea eta segurtasuna bermatzeko behar-beharrezkoak dira.

3) Erakundeen arteko elkarlana eta lankidetza exijitzen dizuegu, bai eta herritarrok bide-segurtasunean ditugun arazoei eraginkortasunez aurre egiteko politika publikoak ere. Esan bezala, alderdikeriak utzi, eta lan egin ezazue behingoz herritarren onura lehenetsita zuen interes politikoen gainetik (...)".

**Puntu Beltzik Ez herri plataforma**

# Armagabetze prozesua, argitara

Gehienoi armagabetze prozesuko azken urratsak izango zaizkigu ezagunak. Baina ez, iazko apirilean, Baionan egin zen ekitaldi hartara heltzeko aurrez jorratu zen bide luze eta zaila. Atzeko lan itzel horri lotutako datu eta lekukotzak bildu ditu orain, Iñaki Egañaren “Armagabetzea, euskal bidea”, Gara, Mediabask eta Txalapartak argitaraturiko liburuak. Talde lan honetan parte hartu du, besteak beste, Arantxa Manterola usurbildarrak.



“Ezagutzen ez diren gauza asko daude hemen, erakusten dutenak zein konplexua den halako irtenbide batera ailegatzea”.

**NOAUA! Izenburuari erreparatuta, liburuak gehienontzat ezezaguna izan den prozesu baten kontakizuna biltzen du.**

**Arantxa Manterola:** Iazko apirilaren 8ko Baionako ekitaldia ez da hutsetik etortzen, ibilbide luze, korapilatsu eta oso zailaren atzetik baizik. Liburuan ikusten da zer gorabehera izan diren, batez ere ETA-k borroka armatua bertan behera utziko duela erabakitzen duenean. Berez, inflexio puntua 2011ko urriko Aieteko Adierazpena izan zen. Baina horretara ailegatzeko ere ikusten da bide zail bat egina zegoela ere. Ezagutzen ez diren gauza asko daude hemen, erakusten dutenak zein konplexua den halako irtenbide batera ailegatzea.

*ARANTXA MANTEROLA*

***“Bi Estatuek zuten borondate eza ikusita, gatazkaren irtenbide prozesuan bide propio bat bilatu behar izan da”***

**N. Eremu ezberdinetako hogeitik gora eragileetako ordezkari elkarrizketatu dituzue. Konponbidean aurrerantz egiteko egon den elkarlanaren seinale.**

**A. M.** Azken finean, bi estatuek zuten borondate eza ikusita, gatazkaren irtenbide prozesuan bide propio bat bilatu behar izan da. Azkenean eredu oso bitxira ailegatzeko; gizartea, eragile sozialak, herritarrek parte hartzen duten prozesu batera. Eredu berri batera. Xake taula modukoa dela ikusten da; piezak jartzen joan, kendu, beste batzuk bota. Azkenean berri batzuk sartu dira eta haiek desblokeatu dute partida, behintzat armagabetzearen eremuan.

**N. Eredu berria, nazioarteko gatazketan gobernuak inplikatu izan diren konponbide prozesuak ikustera ohituak egon baikara orain arte.**

**A. M.** Edo bitartekarien bidez egin direnetara. Hemen bitartekari piloa dago, asko gainera seguruan ez direnak sekulan azalduko. Baina eredu klasikoetatik at geratu da. Euskal gizarteak, eragileek asmatu dute bide bat, euskal bidea. Bitartekaritza lanetan aritzen den Berghof Fundazioak armagabetzearen ostean eginiko txostenean, irakaspen asko eskaini duen eredua dela eta prozesuaren jabetza Euskal Herriarena izan zela azpimarratzen du.

# Arantxa Manterola: “Talde lana izan da”

**NOAUA! Liburua elkarlan proiektu bat izan da, ezta?**

**Arantxa Manterola:** Talde lana izan da. Lan gehiena idazleak berak, Iñaki Egañak egin du; lekukotzak hartu, datuak kontrastatu... Iparraldean ari naiz lanean. Zuzenketa eta itzulpen lan batzuk eginez lagundu dut. Oso konplexua da, Iparraldeko bizitza eta hemengoak ez dira berdinak. Hango eragile politiko eta sozialek izugarrizko papera izan dute. Komeni zen haiek elkarrizketatu, haiekin egotea. Baita ere hegoaldeko gobernu edota Foro Sozialeko kideekin.

**N. Beste klabe batzuetan ulertu behar dugu bertako errealitatea?**

**A. M.** Bai. Kultura oso desberdinak daude atzean: hasteko, hemen alderdiek pisu handia dute baina Iparraldean eta estatu frantziarrean oro har, hautetsiak ez daude hain lotuak alderdi bati, ideologikoki bai baina egitura aldetik ez. Artisauek eta hango alderdi politikoetako hautetsi askok parte hartu eta horrela inplikatu izana giltzarria izan da. Elkarlan bat eman da, haiek esaten dute bere txikitasunetik gauza handira iritsi dira, gobernu frantziarra bera ere hain blokeatua zuen afera mugiaraztera.

**N. Aurkezpen bira orain.**

**A. M.** Egin dira aurkezpenak Donostiako San Telmon, Iparraldean. Han egon ziren gainera artisauetako batzuk eta Jean-Rene Etxegarai, Euskal Elkargoaren presidentea. Egon dira hango alderdietako buruak. Iruñean aurkeztuko da martxoaren 27an. Merezi du irakurketak. Hartara jabetzen gara herritarrak, ze hesi eta muga pasa behar diren. Oso korapilatsua da.

Lan itzela egin dute askok eta itzalean.

# Kabiene, parekidetasunerantz

Emakume gehiagoren elkarlan gunea ere izan nahi du, jada urtebetetik gorako ibilbidea jorratu duen Kabienek. Bertan diharduten lankideen artean, bi dira emakumezkoak. Emakume gehiago erakartzeko ahalegin betean dabiltza. Kabiene parekideago bat izateko batzordea osatu dute, eta testuinguru horretan antolatu zuten baita emakume ekintzaileekin, Martxoaren 8ko solasaldia, Maialen Garagarza eta Carola Giraudo Kabieneko kideek NOAUA!ri lerrootan adierazi diotenez.



Kabiene parekideago bat izateko batzordea osatu dute, Maialen Garagarza eta Carola Giraudo Kabieneko kideek NOAUA!ri adierazi diotenez.

**NOAUA! Zuen lan eremua aurkezterik bai?**

**Maialen Garagarza:** 2011tik nabil autonomo bezala itzultzaile lanetan. Kabiene martxan jarri zenean erabaki nuen hemendik lan egitea, neuretzat etxean aritzea baino askoz erosoagoa zelako, eta bestetik, proiektua oso interesgarria iruditzen zitzaidalako.

**Carola Giraudo:** Diseinatzaile grafikoa eta autonomoa naiz. Etxean egiten nuen lana. Haur txikia dut eta pisu txikia. Lana eta familia uztartzea ez da erraza izaten. Autonomoa izateak beste ordutegi batera egokitzea ahalbidetzen dizu. Kabiene abiatu zenean hasi nintzen. Etortzen naizenero oso gustura sentitzen naiz.

**N. Etxetik ateratzeko pausoa onuragarria izango zen.**

**M. G.:** Batez ere zaila da bereiztea etxeko bizitza eta lana. Azkenean bi eremuak nahastu egiten dira. Kabienek arlo ezberdinetako lankideak izateko aukera ematen digu. Zure egoeran dagoen jendea ikusi, erlazionatzekoa. Norabaitera zoaz lanera eta hori beti da onuragarria guretzat. Gainera oso giro ona dago, oso jende jatorra.

*MAIALEN GARAGARZA*

***"Zaila da bereiztea etxeko bizitza eta lana. Azkenean bi eremuak nahastu egiten dira. Kabienera etortzean, norabaitera zoaz lanera eta hori beti da onuragarria guretzat. Gainera oso giro ona dago, oso jende jatorra"***

**N. Zer da zuentzat ekintzaile izatea?**

**M. G.:** Neure burua ekintzaile gisa Kabieneko kide naizen aldetik ikusten dut, ez nire lanbideagatik. Neure burua inoiz ez nuke ekintzaile gisa aurkeztuko, autonomo gisa baizik. Enpresa bat muntatzea eta halako terminoetan ez dut pentsatzen. Hein handi batean gure buruaren eta gure ekimenaz bezeroak bilatu eta haiei erantzutearen mende bizi gara.

**C. G.:** Ni ere berdin. Proiektu piloa dut orain, baina ez da une hona horiek gauzatzeko. Orain une ona da haurra hezteko eta autonomo gisa lasai lan egiteko. Nik kontrolatzen dut zenbat bezero behar ditudan, soldata bat dut eta kito.

**N. Ekintzaileetasuna Kabieneren bidez garatzen duzue beraz.**

**M. G.:** Kabienen, norberak bere lana egiteraz gain, proiektu honetan inplikatzea bilatzen dugu.

**N. Kabienek zer ekarpen egin dio zuen ibilbide profesionalari?**

**C. G.:** Jende gehiago ezagutzea. Gainera, etxetik ateratzeko askatasuna eman dit eta gogoratzekoa ez naizela ama bakarrik. Oso ondo dagoela ama izatea baina beste gauza batzuk egin ditzakezula baita. Azkenean irla txikietan lan eginda isolatzen zara. Kontziliatu behar duzu gainerakoekin. Proiektu bateko kide izatea positiboa da.

**M. G.:** Sinisten dugun proiektu honen alde eta honengatik borrokatzeak asko elkartu gaituela uste dut. Niri balio izan dit, beste arloetako pertsona batzuk ezagutu, nola lan egiten duten ezagutzeko.

## Taldean lan egiteaz

**N. Martxoaren 8ko solasaldian hainbat emakume ekintzaile bildu zenituzten. Haiei entzundakotik zer nabarmenduko zenukete?**

**M. G.:** Oso perfil ezberdinetako emakumeak izatea bilatu nahi genuen, baina denak bai heltzen zirela puntu komun batera; ze garrantzitsua den taldean lan egitea. Azkenean, ekintzaileak aipatuta banakakoak etortzen zaizkigu burura, baina taldearen garrantzia azpimarratu zuten. Genero ikuspegi interesgarria eskaini zuten, ideia asko bota zituzten, gerora asko pentsarazi zigutenak. Balio izan zigun baita ere betaurreko moreak janzteari buruz ziotenak. Nola denbora guztian ezin dugun betaurreko horiek jantzita egon, eta ez ez dela ezer gertatzen betaurrekoak erortzen zaizkigunean. Askotan jotzen dugula gure buruari errua egoztera eta gehiago estutzera, eta horren aurrean, hanka sartzeak naturalizatzea eta berriz ez egiten saiatzea dela gakoa.

# “Beti diogu, Kabienen denok garela berdinak baina parekide ere izan nahi dugula”

**NOAUA! Eremu honetan, Kabienen, nola ikusten duzue, emakume eta autonomoa izatea?**

**Maialen Garagarza:** Ikusten genuen jada arazo bat bihurtzen ari zela. Leku eske etortzen zitzaizkigunak gizonezkoak ziren eta zer gertatzen zen galdetzen genion gure buruari.

**N. Zer ondoriotara heldu zarete?**

**M. G.:** Inguruotako coworking batzuetan galdezka aritu gara eta ez dute arazo hau. Ez genekienez jatorrian zer zegoen, gai honen lanketa bideratzeko batzorde bat sortu genuen. Beti diogu, Kabienen denok garela berdinak baina parekide ere izan nahi dugula. Martxoaren 8a jendea Kabienera erakartzeko egun aproposa izan zitekeela ikusi genuen eta emakume ekintzaileekin solasaldia antolatu genuen. Asko poztu ginen gizonezkoak baino emakume gehiago etorri zirelako. Jendea Kabienera erakarri nahi genuen, ikustea badaudela emakume ekintzaileak, jendea animatzea proiektuetan sartzera eta sartuz gero halako leku batera etortzea proiektua martxan jartzera. Hori zen gure helburua eta orain ia emaitzak etortzen diren.




**Martxoaren 8an antolatu zutensolasaldiaren kartela dute eskuartean. Argazkia: Kabiene.**

> *KABIENE*
>
> ***“Martxoaren 8an jendea Kabienera erakarri nahi genuen, emakume ekintzaileak ere badaudela ikus dezaten”***

**N. Emakume ekintzaileei zer esan?**

**M. G.:** Proiektu bat izan eta iruditzen zaionari leku bat edo laguntza behar duela proiektu hori martxan jartzeko, etor dadila Kabiene ezagutzera. Gustura hartuko ditugu, emakumeak bereziki. 18 kiderentzako lekua dago. 10 gizonezko eta 2 emakume gaude. Egoera paretsu samarrera ailegatu nahi badugu, jada emakumeentzako gorde behar ditugu lekuak.

**C. G.:** Kabienera etortzeko beste modalitate batzuk badira. Atea irekia dute adibidez lan proiektu bat lantzen aritu, etorkizunean abiatu nahi eta horretarako egun edo aldi baterako gune bat behar dutenek.

**N. Etorkizuneko alternatiba bat da autonomoa izatea?**

**M. G.:** Geroz eta autonomo gehiago dagoela dirudi. Tartean, autonomo faltsu asko, erabat enpresen mende. Espainiako legeekin autonomoa izatea oso zaila da, oso kuota altua daukagu oso gutxi kotizatzeko, orduan hilean asko fakturatu behar duzu nominapeko batek irabazten duena irabazteko. Asko sinistu behar duzu zure proiektuan. Ez da batere samurra. Ez duzu oporrik, bajarik, langabeziagatiko prestaziorik, ordutegirik ez. Abantailak baditu, noski baietz. Tartean, zuk erabakitzen duzu nola antolatu zure lan aldia. Ikuspuntua aldatu behar da autonomoa izateko. Hilabeteari hainbeste begiratu beharrean urteari begiratzen ikasi behar duzu, hilabete batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago irabaziko duzulako.

## “Ez dugu lantoki hutsa izan nahi, zerbait eskaini nahi diogu baita herriari”

**NOAUA! Ikuskera aldatu, konbentzimendua eta pausoa emateko ausardia... Zer beharko litzateke zuen lan eremura jauzi egiteko?**

**C. G.:** Norbere buruarengan sinestea, eta bizitza estilo hau maitatzea.

**M. G.:** Asko kostatzen zait ez jakitea bi hilabete barru lana izango dudan edo ez. Baina horrekin bizitzen ikasi behar da. Lanik gabe geratzen bazara gero ez duzu ezer eta horrek beldurra ematen du.

**C. G.:** Egia da enpresa batzuetan ere ez daudela oso seguru.

**M. G.:** Inoiz ez naiz izan kontratupeko langilea. Opor ordainduak eta ordainsari estrak izatea harrotza zaigu.

**N. Kabienek dagoeneko urtea eta gehiago bete du. Orain arte eginiko ahaleginak merezi izan du?**

**M. G.:** Hasieran ibili ginen bezala ibilita, gero halako zerbaitera ailegatzea, nik uste oraindik sinistu gabe gaudela, oso pozik gaude. Urtebeteren ostean, badirudi “martxa” hartzen ari dela eta ia gauza gehiago antolatzen segitzen dugun. Hasierako helburua hori baita, ez dugu lantoki hutsa izan nahi, zerbait eskaini nahi diogu baita herriari.

# Ainhoa Intxaurrandieta: "Lurraldeari diru xahuketa itzela aurreztu genion"

Herriz herri dabiltza erraustegiak atzean ezkutatzen duen errealitatea salatzen, datorkien epaiketarekin jokoan dagoenaz ohartarazten. Gipuzkoan barrena herriz herri eskaintzen ari diren "Angula ustelak" hitzaldi sorta, elkartasun bira ere bada.

Datorren apirilaren 12an Madrilen epaituko dituzte 2013ko azaroan erraustegia geratzeagatik, dioten moduan "euskal erregimenari aurre egiteagatik", orduko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) lehendakari Ainhoa Intxaurrandieta eta garai hartako Foru Aldundiko ingurumen diputatu Iñaki Errazkin. Epaiketaren testuinguruan jokoan dagoena erraustegitik haratago doala ohartarazten zuten Ainhoa Intxaurrandietak eta Igor Melchorrek, martxoaren 7an Sutegin eskaini zuten hitzaldian. "Hurrengo legegintzaldietan estrategikoak diren azpiegiturak ukiezin bihurtu nahi dituzte". Adibide moduan aipatzen zuen Zubietako erraustegia, baina baita AHT, Donostialdeko metroa…


Apirilaren 12an epaituko dute Madrilen.

AINHOA INTXAURRANDIETA

*"Hurrengo legegintzaldietan estrategikoak diren azpiegiturak ukiezin bihurtu nahi dituzte"*

**Erraustegia lotua uzteko presaka**

Erraustegiari dagokionez, 2011ko udal eta foru hauteskundeen ostean, erakundeetara heldu zirenetik bizitakoa partekatu zuen Intxaurrandietak Sutegira bertaraturiko herritarrekin. Duela zazpi urteko hauteskundeak ospatu bezperatan, gaindimentsionatua zegoen erraustegiaren kontratua sinatua uzteko haien aurreko agintariek eginiko ahalegina, gutxieneko baldintzak betetzen ez zituen oinarrizko proiektua GHK-n aldaketa eman aurretik presaz onartzeko eginiko saiakerak, erraustegia proiektu gisa atzeraezin bilakatzeko kontratatu ziren SWAP produktu finantziero kaltegarriak, kontratua sinatu ostean orduko agintari eta banketxeetako ordezkariek egindako angula jana (hortik bira honen izenburua), GHK-n izandako ordenagailu "desagerketa"…

Erabaki guztiok, 2013ko azaroan EHBildu Aldundian zela, erraustegiko lanak geratu ahal izatea zaildu zuten. Enpresa eraikitzaileei kalte ordainak ematera behartu zituzten une hartako agintariak. Erabaki harengatik epaituko dituzte orain Intxaurrandieta eta Errazkin, Madrilgo Kontu Auzitegian apirilaren 12an. Hemendik aurrerakoak asaldatu behar gaituela zioen Ainhoak. "Marra gorri asko zeharkatzen dituzte eta ez diegu utzi behar", zioen Intxaurrandietak Sutegin. Halako jokabideekin tolerantzia zero izan behar dugula dio.

Epaiketaren atarian zioen, "eskertzekoa da oso, elkartasun mezu ugari iristen ari zaizkigu, indar handia ematen du horrek". Prozesu honek maila pertsonalean duen eraginaz jardun zen. Eremu ekonomikoan, "bizi osoko soldata enbargoa" izateko arriskuaz gain, hasiera batean "mundua gainera erortzen zaizu". Baina zioenez, "horrekin bizi behar da". Ikusteke dago zer gertatuko den. Edozer dela ere datorrena, Intxaurrandietak argi zioen Sutegin. "Akasgabea da egin genuen guztia. Lurraldeari diru xahuketa itzela aurreztu genion".

**"Bigarrenez gera daiteke"**

Etorkizunari buruz argi zioen. Beraiek 2013an erraustegiko lanak geratzea lortu zuten. "Behin gelditu bazen, bigarrenez gera daiteke", zioen Intxaurrandietak Sutegin.

## Elkarretaratzea eta autobus zerbitzua Madrilera

Hitzaldian zehar hitz egindakoa, xehetasun gehiagoz hilabete gutxi barru argitaratu asmo duten liburuan jasoko dute. Komiki bat ere argitaratzekoak dira, eta sare sozialetan zabalduko duten bideo grabazio bat ere egingo dute.

2013an erraustegia geratzeagatik apirilaren 12an epaituko dute Ainhoa Intxaurrandieta, Iñaki Errazkinekin batera Madrilgo Kontu Auzitegian. Egun bateko epaiketa saioa izango da. Biei elkartasuna adierazteko autobus zerbitzua antolatu da. Autobusez joan nahi duenak deitu dezala telefonoz hona: 680 352 018 (Lontxo). Epaiketari begira bestalde, elkarretaratzea deitu dute ostiral honetarako, martxoak 23, 18:30-19:00 artean, Andoaingo Bazkardoko zubi parean.

### Euskaraldia prestatzeko bilera

Apirilaren 17rako deitu dute Euskaraldia diseinatzen segitzeko hurrengo batzar irekia. Ohi bezala, arratsaldeko 18:00etan izango da, Potxoenean.

### Irakurketa topaketa Pako Aristirekin

Apirilaren 25erako antolatu du Usurbilgo Udalak, hurrengo euskarazko irakurketa topaketa 19:00etan Sutegi udal liburutegian. Garaiz jakin dezazuen; Aitziber Etxeberriaren "Nomada" liburua aztertuko da, idazlea saioan bertan dela, Pako Aristik bideratuko duen solasaldian.

### Errenta Aitorpena kanpaina, hastear

Badator Ogasunarekin diru kontuak argitzeko garaia. Errenta Aitorpena kanpaina abiatzear da. Kontuan izan ondoko egutegi hau:

■ Zerga informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko ataritik eskuratu edo postaz bidaltzea eskatzeko aukera dago jada.

■ Apirilak 10-24: autolikidazio proposamenak bidaliko dituzte.

■ Apirilaren 6tik aurrera: autolikidazio proposamenak ikusteko aukera egongo da.

■ Apirilak 16-ekainak 30: autolikidazio proposamenak onartzekoa.

■ Apirilak 20-ekainak 9: errenta aitorpen mekanizaturako hitzordua eskatzeko aukera (autolikidazio proposamena onartu nahi ez dutenek apirilaren 26ra arte itxaron beharko dute).

■ Apirilak 23-ekainak 30. Errenta Aitorpena.

**Argibide gehiagorako:**
gipuzkoa.eus/ogasun

# Apirilaren 14an, psikomotrizitate saioa Bihurri ludotekan

Apirilaren 14an larunbatarekin, Bihurri ludotekan 15-36 hilabete bitarteko haurrei zuzenduriko psikomotrizitate saioa, Munia Larburu adituarekin. Goizez egingo da saioa. Taldeak antolatu asmoz izena aurrez eman beharko da 666093592 telefono zenbakira deituz. Bete beharreko baldintza: "haurrak oinez ibiltzen jakitea".


Txan Magoak Bihurri ludoteka bisitatuko du ostiral honetan, 17:00etan.

**Ostiral honetan, Txan magoa**

Oporren atarian diren haur txikiei zuzendutako bi ekitaldi antolatu ditu Bihurri ludotekak asteotarako:

■ Martxoak 23 ostirala, 17:00 etan Txan magoaren ikuskizuna: "Inpernutik natorren artista bat naiz ni".

■ Apirilak 3 asteartea, 17:00etan eskulan tailerrak. "Opor garaian zatoz Bihurri ludotekak antolatu duen eskulan tailerrera", gonbitea luzatu dute Bihurrikoek.

# VI. Dantza Eguna, apirilaren 21ean

Dantza eta dantzariak plazara irteteko jai egun handiak, data zehatza finkatua du; apirilaren 21a. Orbeldi Dantza Taldeak josia du baita egun horretarako egitaraua:


Emanaldi ugariz osatu dute egitaraua.

**Apirilak 21, larunbata**

■ 10:30 Dantza taldeei ongietorria.

■ 11:00 Argazki ofiziala.

■ 11:30 Dantza taldeen kalejira herrian zehar:

- Orbeldi Dantza Taldea (Usurbil)
- Akelarre Dantza Taldea ( Hendaia)
- Aurtzaka Dantza Taldea (Beasain)
- Ortzadar Dantza Taldea (Iruñea)
- Lainomendi Dantza Taldea (Derio)

EGUERDIAN, KALEJIRA

***Beste herri batzuetako dantza taldeak gonbidatu dituzte***

■ 13:00 Emanaldia frontoian.

■ 14:30 Dantzarien bazkaria.

■ 17:00 Orbeldiko haurren emanaldia frontoian.

■ Jarraian, TTIPIKA dantza gidatuak.

■ 22:30 "Euskal Genesia" ikuskizuna, Orbeldi Dantza Taldearen eskutik.

Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.

## Udan haur sahararrak etxean hartzeko familiak behar dira

Oro har, 130 familia behar dituztela ohartarazi dute sare sozialen bidez "Oporrak Bakean" egitasmoko sustatzaileek. Elkartasun ekimen honek, haur saharrek uda parteko hilabeteak gure artean, haien sorterriko bizi baldintza gogorretatik urrun igarotzeko aukera izaten dute. Informazio gehiago Facebook-en, "Oporrak bakean" orrialdean.

Gai honen inguruko argibide gehiago udaletxeko gizarte zerbitzuetan jaso dezakezue. Bestela deitu 943 377 110 telefono zenbakira.

## Gazte Akelarrea, sarrerak Aitzagan

Ernai eta Aitzina gazte erakundeek antolatuta, martxoaren 30etik apirilaren 1era Gazte Akelarrea Oiartzunen. Bonoak eta sarrerak ere Aitzagan dituzue salgai.

## "Gatz basatia" txotxongilo antzezlana

Maitena Illarramendiren saioa, apirilaren 14rako antolatu du Usurbilgo Udalak, 17:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak 2 eurotan eskuragarri. "Gatz Basatia titiritorto bat da. Bertizeko oihanaren sakonean bizi diren izaki bitxiak dira titiritortoak. 40 zm neurtzen dituzte gutxi gora behera, begi bakarrak, berdeak eta horiak, isats luze batekin. Basoan kamuflatzen dira, horregatik buruan ilearen ordez landareak dituzte, batzuetan basafruitu eta guzti. Zuhaitzen barruan bizi dira, okilek egindako zuloetan".

# Mugimendu autonomo librea

Usurbilgo haurreskolan, mugimendu libreari garrantzi berezia ematen diogu. Emmy Pliklerren metodología jarraitzen dugu.

Munduan ezaguna da Emmi Piklerren *Moverse en libertad* liburua eta lan horretan zehatz eta mehatz azaltzen du zein den egiteko modu horren funtsa. Piklerren hitzetan, mugimendu autonomo librean hazten den haurrak bere gorputzaren eta gaitasunen ezagutza osoa lortzen du, bere mugak ondo ezagutuz eta bere buruarengan konfiantza edukiaz. Baina haurrak bere buruarengan konfiantza izan dezan, aurretik, berarekin dagoen harreman egonkorreko pertsonak bere gaitasunetan konfidantza duela erakutsi behar izan dio eta haurrak nahita nahiez hori bizitu du.

Era berean, ulertu beharra dugu edozein ekintza motriz, ekintza mentalaren ekoizpena dela. Batak bestea dakarrela. Haurrak, mugimendu bat egiten ari denean, dituen sentimendu eta pertzepzioak ondorengo jarrera edo mugimendu bat indartzen dutelako gertatzen dira, beti. Hau da, burua prestatzen dute; behin eta berriz errepikatzen dute mugimendua, pixkanaka konfiantza hartzen dute… Horri esker indar berezi bat sortzen da ondorengo jarrerak eta mugimenduak garatzen joateko.

Mugitzea, azken batean, mundurantz bidea egitea da. Eta oso garrantzitsua da bide hori norberak egitea. Haurra, bide hori egiten ari denean, bere burua aurkitzen ari da. Nolako funtzionamendu autonomoa izan duen ezagutzen du pixkanaka, zer nolako estrategiak erabiliko dituen independentea izateko, sozializatzeko… Eta zalantzarik gabe bere buruarengan konfiantza lortzen joango da: “Ni hori egiteko gai naiz”, pentsatuko du. Baina nola ulertzen da mugimendu libre espontaneoa? Haurrari berez egindako mugimenduan garatu dadin uzten.



**“Emmi Piklerren metodologia jarraitzen dugu”.**

*EMILY PLIKLERREN METODOA*

***“Mugitzea, mundurantz bidea egitea da. Eta oso garrantzitsua da bide hori norberak egitea. Haurra, bide hori egiten ari denean, bere burua aurkitzen ari da. Nolako funtzionamendu autonomoa izan duen ezagutzen du pixkanaka, zer nolako estrategiak erabiliko dituen independentea izateko, sozializatzeko...”***

**“Uneren batean bertikaltasuna ere bere kabuz lortuko du”**

Haurrak, bere kabuz, jarrera bat edo beste aurkitzeko mugimenduak egiten baditu, uneren batean bertikaltasuna ere bere kabuz lortuko du. Helburua bere kabuz lortzeak sendotasuna eskaintzen dio. Eta bere gorputzarekin kofiantza duelako gustura, ondo eta batez ere seguru sentitzen denean, gai izango da kanpotik edo mundutik datorkion bizitza fisiko guztia integratzen joateko.

**“Zer duen faltan baino, zer dakien egiten”**

Oso ohikoa da gurasoak parkeetako jostailuetan ikustea haurrak ‘behartzen’, eta nola egin behar duten azaltzen: “Orain hanka bat, orain apur bat goraxeago, ondo ondo segi horrela!”. Haurrak, baina, arraro begiratzen dio, ez duelako ulertzen. Ez duelako bere gorputzean ez eta bere buruan integratu. Prozesuak aurreratzen saiatzen garenean horrelakoak gertatzen dira. Baina modu naturalean egiten direnean, haurrek konpetentzia maila garrantzitsua erakusten dute.

“Ez begiratu haurrari zer falta zaion ikasteko; baizik eta zer dakien egiten”.

**Haur Eskolako hezitzaileak.**

## Aginagako eta Zubietako Eskolak greban

Martxoaren 14 eta 15ean unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan deitua zegoen greba egunekin bat egin zuten Zubietako eta Aginagako Eskolek. Bi egunotan, ikastetxeok ikasgelak hutsik izan zituzten. Oro har baita, jarraipen zabala izan zuen, hezkuntzara inbertsio gehiago bideratu, langileen lan baldintzak hobetzea eskatu edota murrizketak etetea galdegitea xede zuten lan uzte eta mobilizazioek.

## Ingeles udalekuetarako izen ematea

“Enjoy English” ingeles udalekuak antolatu ditu Udarregi Ikastolak uda parterako. Interesdunek apirilaren 13ra arteko epea dute izen emateko, ikastolatik berri eman dutenez. “Berrikuntzaz beterik datorren udalekua. Aurten formatu berriarekin, 2, 3 edo 4 aste aukeran. Jatorrizko ingeles-hiztunak diren hezitzaileek gidatuta”.

■ Norentzat: A taldea: 2012-2010 artean jaiotako haurrentzat. B taldea: 2009-2006 artean jaiotako haurrentzat.

■ Iraupena: 2, 3 edo 4 aste, aukeran. Ekainaren 25etik uztailaren 20ra. Goizeko 9:00etatik 13:00era.

■ Prezioa: 2 aste 200 euro, 3 aste 285 euro, 4 aste 335 euro. Hezitzailea etxean hartzen duen familiak ez du ordaindu beharrik izango. Ordainketa bi zatitan egingo da.

**Informazio gehiago:**
udarregi.eus / 943 36 12 16

# Itzulia, Aginagatik Txikierdira

Itzulia Basque Country izena estreinatuko duen txirrindulari itzuli ezaguna inguruotatik igaroko da aurten ere. Zarautzen hasi eta amaituko den apirilaren 2ko 162,1 kilometroko lehen etapan izango da. 13:40 aldera helduko dira txirrindulariak Orio aldetik N-634 errepidetik barrena Aginagara.

Errepide honetatik zeharkatuko dute partaideek Usurbil, 13:46 aldera. Honenbestez, adi. Ordu horren bueltan itxita egongo baita errepidea bi noranzkoetan. Txikierditik Hernani aldera eta handik Pasaiaraino joango dira gero. Handik Donostiara itzuliko dira, eta Igeldotik barrena berriz ere Usurbildik oso gertu igaroko dira. 15:25 aldera, Mendizorrotz ingurutik.



**Apirilaren 2an 13:40 aldera helduko dira txirrindulariak Orio aldetik.**

Informazio gehiago: itzulia.eus

## Eskubaloi partidak Oiardo kiroldegian

**Martxoak 24, larunbata**

■ 11:00 Infantil mutilak, Gipuzkoa: Udarregi A-Elgoibar

## Zubieta, Gipuzkoako txapeldun

Bai ala bai, etxekoek izan behar zuten garaile, zubietarren artean jokatu baitzen martxoaren 17an, Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketaren gizonezkoen Joko Garbiko finala. Zorionak!
Azken emaitza:
J. Aizpurua-U. Rezola 40
J. Aizpurua-U. Azpiroz 28



## Usurbil F.T.-ren kirol txokoetako guraso bilera

Futbol taldeen bilguneak apirilaren 3tik 7ra (10:00-13:00 artean) antolatu dituen kirol txokoetan izen emateko aukera izan dute asteotan Lehen Hezkuntzako ikasleek. Apuntatu direnen gurasoentzako bilera deitu dute larunbat honetan, martxoak 24, 12:00etan Potxoenean.
Argibide gehiagorako:
futusurbil@yahoo.es

## Apirilaren 8an, Gipuzkoako Biraren laugarren etapa

Urte hasieratik Gipuzkoari bira ematen ari dira Andatza M.K.T.-ko kideak. Laugarren etapa, 23 kilometrokoa, apirilaren 8rako iragarri dute. Eibarretik abiatu eta Udala (Arrasate) arteko bidea osatuko dute. Goizeko 07:00etan abiatuko dira Oiardo Kiroldegitik autobusez. Izena apirilaren 4a baino lehen eman eta 30 euroko ordainketa egin beharko da:
Rural Kutxa: 30080259163005430321
Kutxabank: 20955069071068489805



**Udala (Arrasate).**

**Oharrak:**
-Plaza kopuru mugatua.
-Bazkaria, Arrasateko Larrinetxe jatetxean egingo da.
-Ezinbestekoa da mendiko federatua izan eta aseguru txartela indarrean edukitzea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu".

**Argibide gehiagorako:**
andatza@hotmail.com
andatzamendizale.info

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Etxea salgai Atxegalden. 4 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Dena berritzeko. 659 921 235

90 m2 pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m2- terraza, 8 m2 trastelekua eta bertan 33 m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 $m^2$ eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 $m^2$. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 $m^2$, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 $m^2$ pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 $m^2$ (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 $m^2$. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

### Alokairuan

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 $m^2$, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34$m^2$ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatxiki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaia azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro$^2$ lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 $m^2$, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Zubietan etxeko lanak egiteko emakume bat beharko nuke. Lan-egun erdian. 695 783 202

Zerbitzari bat behar dugu asteburutarako Artzabal jatetxean eta udaran ordu gehiago. Tarteka asteburuak jai egiteko aukerarekin. Garrantzitsua euskara jakitea eta esperientzia izatea. artzabaljatetxea@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldez. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezela edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Pertsona helduak zaintzen lan egingo lukeen mutil bat naiz. Larunbat eta igandetan, esperientzia daukat. Tel. 632 793 747

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen,





**Zorionak bikote!** Martxoaren 20an ondo ospatu zuen urtebetetzea. Zenbat kandela ote?
Muxu bana etxekoen partez.

**OHARRA:** 2018ko apirilaren 13an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: apirilaren 9an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezela edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezela, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

**BESTELAKOAK**

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahaia, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 13an kakatua txiki bat (ninfa) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Kutxabank | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco SabadellGuipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Martxoak 22 - Apirilak 01

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 22 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Ostirala** | 23 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Larunbata** | 24 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Igandea** | 25 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Astelehena** | 26 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Asteartea** | 27 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte e |
| **Asteazkena** | 28 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Osteguna** | 29 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Ostirala** | 30 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Larunbata** | 31 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Igandea** | 01 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda martxoa

## 23 ostirala

- **Jose Mari Soroaren kantaldia.** 16:30ean Artzabalgo areto nagusian.
- **Txan magoa.** Bihurri ludotekan, 17:00etan.
- **Elkarretaratzea** Mikel Laboa plazan, 20:00.
- **Afalosteko kontzertua.** 22:00etan Sutegin Iñaki Lazkano, Natali, Xabi San Sebastian.

## 24 larunbata

- **Usurbil F.T.-ren kirol txokoetako guraso bilera.** 12:00etan Potxoenean.
- **Jubilatuen Astea: Lasarte-Oriako abesbatza.** 17:00etan Sutegin.
- **Kontzertua Aginagako Eliza Zaharrean.** NAO, Odolaren Mintzoa, Dj Seymar. 23:30ean.

## 25 igandea

- **Ordu aldaketa.** Goizaldeko 02:00etan 03:00ak izango dira.
- **Tipi Tapa** 15:00ak arte Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Guria, Txiriboga eta Txirristra tabernetan.

## Jubilatuen Asteko azken ekitaldiak

Kantua, antzerkia eta bazkaria tartekatuko dituzte, Gure Pakea Elkarteak egunotarako antolaturiko Jubilatu Astearen azken txanpan:

**Martxoak 22, osteguna**

- 17:00 “El Moderno” antzezlana Sutegiko auditorioan.
- Zehaztasunak: “60. hamarkada bukaeran egoera politikoa aldatzen hasi zen poliki poliki, geroago emango zen aldaketaren aurrerapen gisa. Aldaketa horrek konfrontazioa sortuko zuen gizartean, herrietan hirietan baino gogorragoa izan zena, eta antzezlan honek garai hura islatzen du”.
- Zuzendaria: Josema Lángara.
- Taldea: ONCEko Oroimenak antzerki taldeak eskainitako antzerkia.
- Hizkuntza: gaztelania.
- Sarrera: doan.

**Martxoak 23, ostirala**

- 16:30 Jose Mari Soroaren kantaldia Artzabalgo areto nagusian.


Ostiral honetan, Jose Mari Soroak kantaldia eskainiko du Artzabalgo areto nagusian.

**Martxoak 24, larunbata**

- 17:00 Lasarte-Oriako abesbatza Sutegiko auditorioan.

**Martxoak 25, igandea**

- Meza eta bazkaria.
- Antolatzailea: Gure Pakea Jubilatuen Elkartea.

## ‘Afalosteko kontzertua’, martxoaren 23an Sutegin

22:00etatik aurrera Sutegin, Xabi San Sebastian, Natali taldea eta Iñaki Lizaso. Sarrerak egunean bertan izango dira salgai 6 eurotan.

## Larunbatean, kontzertua Aginagan

Aginagako Eliza Zaharrean arituko dira NAO eta Dj Seymarrekin batera. Martxoaren 24an, gaueko 23:30ean. Sarrerak 5 eurotan eskuragarri.

## Datozenak




### Larunbatetik igandera, ordu aldaketa

Adi, erlojuak eguneratzeko ordua heldu da berriz. Urrun sentitzen dugun udako ordutegira egokitu beharko ditugu ordulariak asteburu honetan. Larunbatetik iganderako goizaldeko 02:00etan 03:00ak izango dira. Eguna luzatzen eta gaua pixkanaka laburtzen joango zaigu hurrengo asteetan.

### Igandean, onddodun Tipi Tapa

Hurbilago Elkarteak iganderako, martxoak 25, antolaturiko ibilbide gastronomikoa osatu asmo duzuenok, gogoan izan, onddodun pintxo bereziak sukaldatuko dituzte Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Guria, Txiriboga eta Txirristra tabernetan. Amaieran 150 euroko erosketa balea, hogeina euroko beste bi bale zozketatuko dituzte, Tipi Tapa txartela aipatu tabernetako zigiluekin osatu eta edaritegiotako kutxetan uzten duzuenon artean.








Noaua!k
Udajolas-erako
lan-poltsa osatzeko, zuzendaria eta
begiraleak behar ditu,
uztailean lan egiteko.
PROFILA:
2 hilabeteko esperientzia
Begirale tituloa izatea / Zuzendari tituloa
EGA edo baliokidea den agiria izatea
Usurbildarrek lehentasuna izango dute
Interesatuak:
Curriculum-ak
ekarri edo bidali:
Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Usurbil edo
elkartea@noaua.eus
noaua


ARRAUN-JARDUETAK ORIA IBAIAN
Ontzien alokairua
urte osoan zehar
Usurbilgo Txokoalde
auzotik Orioraino,
2,5 orduko jaitsiera
kaiakean.
Begiraleekin antolaturiko
jarduerak
657 794 677
www.begi-bistan.com
info@begi-bistan.com


Betiko Sagardoa
Sagar gazi eta gozoko
aurreneko zuku tantak
jaitsi dira.
TXOTX 2018 Zabalik!
SAIZAR
Sagardotegia
ABANGOARDIA
& TRADIZIOA
Kale-zahar, 39 · 20170 USURBIL (Gipuzkoa) · 943 373 995 · sidreria@sidrassaizar.com
www.sidrassaizar.com

# OSASUN GIDA 2018

Irati Ibargoien
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA
943 53 92 66
Puntapax 6B, behea ezk. - USURBIL




USURBIL OPTIKA

Bigarren lente parea doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente parea doan
2x1
PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10 • ✆ 943 370 269 • 675 708 654

Oinutsik
podologia zentroa
943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil

- Azterketa posturalak
- Azterketa biomekanikoak
- Plantilak
- Kiropodiak (Kailoak, azkazalak, onddoak...)
- Papilomak
- Erreflexoterapia

Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
33/17 PEZ.

*Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua*
*Dermofarmazia*
*Produktu homeopatikoak*
*Maisu formulak*

*Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95*

Lizarralde ORTOPEDIA

✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
✓ Produktu ortopedikoen **alokairu zerbitzua** (oheak, aulkiak, garabiak...)
✓ Arreta pertsonal eta **espezializatua**

Teknikari ortopeda kontsulta · Aholkularitza · Produktu gama zabala

Kazkazuri 1 baxua, Oiartzun - **943 543 585/ 688 678 583**
**www.lizarraldeortopedia.eus**

***Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!***

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
R.P.S 28/17

*Nagusia 10, 1.C4* **943 37 08 78** *USURBIL*

**Osasun gidan azaltzeko: 943 36 03 21 - publizitatea@noaua.eus**